



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko maiatzaren 15a

70. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuari eta organo-emate eta -transplanteari buruzko fiskalizazio txostena

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuari eta organo-emate eta -transplante-  
ari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2015), Kontuen Ganberak  
egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuari eta organo-emate eta -transplante-ari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2015), egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuari eta organo-emate eta -transplante-ari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2015), Kontuen Ganberak  
egina**

**AURKIBIDEA**

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Alderdi orokorrak (3. or.).

II.1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (NOEB) (4. or.).

II.2. Organoen ematea eta transplantea Nafarroan (6. or.).

**III.** Helburuak, norainokoa eta mugak (8. or.).

**IV.** Ondorioak eta gomendioak (9. or.).

IV.1. NOEBen alderdi orokorrak (9. or.).

IV.2. Plasma zatikatzeke lanen kudeaketa (15. or.).

IV.3. Immunologiako laborategia (HLA probak) (16. or.).

IV.4. Organoen ematea eta transplantea Nafarroan (17. or.).

IV.5. Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren betetzea (22. or.).

IV.6. Amaierako ondorioa eta gomendioak (23. or.).

1. eranskina NOEBi eta organo-emateari eta -transplante-ari aplikatzeko zaien oinarritzko araudia, hurrenkera kronologikoan (24. or.).

2. eranskina NOEBek odola lortu, prozesatu eta banatzeko prozedura (25. or.).

3. eranskina Ehunak detektatu, erauzi, gorde eta inplantatzeko prozedura (26. or.).

4. eranskina Hezur-muinaren ematea izateko eta benetako emateko prozedura (27. or.).

5. eranskina Organoak detektatu, eman, erauzi eta inplantatzeko prozedura (28. or.).

6. eranskina Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa NOEBekin lotutako fitxategietan betetzeari buruzko auditorien emaitzaren laburpena (29. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (30. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (42. or.).

## I. SARRERA

2016ko martxoaren 3an Eledunen Batzarraren parlamentu-eskaera bat erregistratu zen, Podemos-Ahal Dugu, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Izquierda Ezkerra talde parlamentarioen ekimenez; haren bidez, eskatu zen txosten bat egin genezala “... *Odol (2005-2015), Organo (2012-2015) eta Ehun (2006-2015) Bankuaren antolamendu-sistemaren eraginkortasunari eta efizientziari buruz...*”

Zehazki, parlamentu-eskaeran eskatzen zen funtsean honako alderdi hauek aztertzeko: odolaren, ehunen eta organoen ematea, kudeaketa eta geroko erabilera; immunologiako eta histobateragarritasuneko laborategia (HLA), eta jarduera horretatik ateratzen den informazio guztiari datuen babesari buruzko araudia nola aplikatu.

Eskaera hori Kontuen Ganberak 2016. urterako onartu zuen fiskalizazioko programan sartu ondoren, auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak 2016ko azarotik 2017ko otsailera bitartean egin du eskatutako lana, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Ganbera honek nabarmendu nahi du 2008ko azaroan Nafarroako Odol eta Ehun Bankuari (aurrerantzean, NOEB) buruzko txosten bat egin zuela, eta hartan 56 gomendio jaso zituela, zentroaren kudeaketa hobetzera bideratuak. Gero, 2010eko urrian eta 2012ko maiatzean, gomendio horien jarraipenari buruzko txosten bana egin genuen, eta haietan ondorioztatu zen gomendio horiek guztiak edo ezarrita zeudela edo garatzeko fase oso aurreratuan zeudela.

Hori dela eta, parlamentu-eskaerak eskatzen bazuen ere odolarekin eta ehunekin zerikusia duen jardueraren azterketa 2005ean eta 2006an has zedila, hurrenez hurren, gure lanaren denbora-esparrua 2011-2015 aldira mugatu dugu, zeren eta aurreko urteak lehendik ere aztertuta baitzeuden. Aldi horretako organo-ematearekin eta -transplantearekin lotutako alderdi guztiak ere aztertuta daude.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, NOEBekin eta organo-ematearekin eta -transplantearekin lotutako alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak lanaren helburuak, norainokoa eta mugak biltzen ditu, eta laugarrenean lotutako ondorio eta gomendio nagusiak azaltzen dira. Gainera, sei eranskin daude, eta haietan honako hauek zehazten dira: auditatutako arloei aplikatzekoa zaien araudia; odola, ehunak, hezur-muina eta organoak lortzeko, tratatzeko eta banatzeko prozedura; eta Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren (aurrerantzean, DBLO) betetzea egiaztatzeko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ) egin dituen auditorien emaitzak.

Lan hau egiteko eman duten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NOEBeko langileei, O-NOZeko eta Osakidetzako organoen eta ehunen transplanteen koordinazio unitateko langileei, immunologiako laborategiko langileei eta parte hartu duten O-NOZeko eta Nafarroako Unibertsitatea Klinikako (CUN, aurrerantzean) langileei.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsoneri jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zituzten:

- Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuko zuzendari ohia.
- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko kontseilari ohia.
- Autonomia erkidegoko transplanteen azken bi koordinatzaileak.
- Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuko zuzendaria.
- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko kontseilaria.
- Autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzailea.
- Nafarroako Unibertsitatea Klinikako zuzendari nagusia.

Kontuen Ganberak finkatutako epean, honako hauek aurkeztu dituzte alegazioak: Osasun Departamentuko kontseilaria, autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzaile ohietako bat eta Odol eta Ehunen Bankuko zuzendaria. Alegazio horiek, zeinek ez baitute aldaketarik ekarri gure txostenean, behin betiko txostenari erantsi zaizkio, Ganberak haiei emandako erantzunarekin batera.

## II. ALDERDI OROKORRAK

### II.1. NAFARROAKO ODOL ETA EHUN BANKUA (NOEB)

#### *Atxikitzea, eginkizunak eta araudia*

20/2010 Foru Legeak NOEB erakundea sortu zuen –lehenago Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa deitzen zitzaion–, eta O-NOZi atxiki zitzaion, Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpe, honako eginkizun hauekin: giza odoletik eta giza zelula, ehun eta organoetatik eratorritako produktuetarako osasun-premiei erantzutea eta produktu horien lorpena, biltegitratzea, kudeaketa eta hornidura bermatzea; organo-ematearekin eta -transplantearekin lotutako alderdi guztien autonomia erkidegoko koordinazioa eta Transplanteen Erakunde Nazionalarekiko (aurreantzean, TEN) koordinazioa.

1/2013 Foru Legea onestearekin, indarrrik gabe utzi zen aurreko legea, eta aldaketa batzuk egin ziren; honako hauek nabarmenduko ditugu:

- NOEB sortu zen, Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritza Mediko Asistentzialari atxikitako unitate organiko gisa.

- Haren egungo oinarriko helburua da giza odoletik eta giza zelula, ehun eta organoetatik eratorritako produktuen osasun premiei erantzutea, eta bermatzea produktu horiek unean uneko eskuragarritasunaren arabera lortu, biltegitratu, kudeatu eta hornituko direla. Xede hori xehetasun guztiekin zehazten da aipatutako legean.

- Organoen ematearekin eta transplantearekin eta TENekiko harremanarekin lotutako eginkizuna kentzen da, zeren eta ulertzen baita koherentzia eta eraginkortasuna falta direla 2010eko araudian bildutako jardueretan, era askotakoak baitira. Horrek esan nahi du organoen ematearekin eta transplantearekin eta TENekin koordinatzeari lotutako eginkizuna NOEBen eginkizuna izan zela soilik 2010eko abendutik 2013ko otsailera, eta gaur egun Osasun Departamentuko Osasun arloko Herriartetasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzuaren esku dagoela.

Aurrerago, NOEBen egitura 25/2014 Foru Dekretuaren bidez zehaztu zen.

Hain askotarikoa den jarduera bat zentro bakar batean kontzentratzeak berekin dakar NOEBi aplikatzekoa zaion araudia ere oso anitza izatea eta gai askori buruzkoa izatea, txosten honekin batera doan 1. eranskinean ikus daitekeen bezala.

Zentro honek bere eginkizunekin lotutako hainbat batzorde eta komitetan hartzen du parte: Hemoterapia Batzordea, Ehunen Batzorde Teknikoa, Transfusioko Ospilale-batzordeak, Hemozaintzako Sistema eta Nafarroako Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarea. Gainera, Nafarroako Hezur-muinaren Emaileen Erregistroa (REDMO deitutakoa) kudeatzen du. Halaber, 2016an eta 2017an Transplanteen Batzorde Teknikoan eta Organo Emateen Aholku Batzordean parte hartzen hasi da.

Urtero hitzarmenak egiten dira Osasun Departamentuaren eta ADONAREN artean, odol-ematea sustatzeko; hitzarmen horien bidez, elkarrekin diru-laguntza izendun bat jasotzen du; bestalde, duela jada zenbait urte, hitzarmen bat badago aipatutako departamentuaren eta Josep Carreras nazioarteko fundazioaren artean, REDMOren funtzionamendurako (azkena 2016ko irailekoa da).

Gainera, jasota dago NOEBen eta Navarrabiomed Biobankuaren arteko lankidetzak-akordio bat badagoela, ikerketarako lagin biologikoekin lotutako jarduerak kudeatzeko eta garatzeko eta lagin horiek lortu eta prozesatzeko. Akordio hori 2012ko ekainetik dago eta 2015ean berritu zen.

Azkenik, O-NOZEN eta Kataluniako Odol eta Ehunen Bankuaren artean zilbor-hesteko odola emateko prozedurarako sinatutako Lankidetzak Hitzarmenaren (“Concordia” izeneko plana) Jarraipen Batzordean dago NOEB. Horri dagokionez, NOEBek 2016rako honako helburu hau jarri zion bere buruari: Nafarroan emandako zilbor-hesteen bidalketak kontrolatzeko gune bilakatzea; gaur egun, ordea, hori egin gabe dago.

*Aurrekontu-betearaztea*

NOEBen aurrekontu-programaren betearaztea 2015ean 5,1 milioi euroko gastuak islatzen ditu: ehuneko 0,6 egin dute gora 2014arekin alderatuta. Diru-sarrera horiek ia milioi bat eurokoak dira; kasu honetan, ehuneko bederatzia egin dute behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Gastuen ehuneko 50 ondasun arruntei eta zerbitzuei dagokie; ehuneko 47 langile-gastuei eta gainerako ehuneko hirua, berriz, inbertsioak dira.

Diru-sarrerei dagokienez, ia guztiak odol-osagaien eta odoletik eratorritako produktuen salmentatik heldu dira. Horretaz gainera, Osasun eta Kontsumo Ministeriotik jasotako munta txikiko transferentziaren bat badago, bai eta baimendutako zentzoei ehunak banatzeak sortutako diru-sarrera txiki batzuk ere.

*Langileak*

NOEBek odolarekin eta ehunekin lotutako jarduera guztia egiteko honako plantilla organiko hau zeukan 2015ean:

Lanpostua	2015-12-31	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
OLT-EUD	17	1	0
Laborategiko teknikari espezialista (LTE)	13	6	6
Administrari laguntzailea	6	2	2
Zerbitzu anitzetako langilea	3	1	1
Sendagilea	3	1	1
Fakultatibo espezialistaren ondokoa	3	0	0
Erizaintzako laguntzailea	3	0	0
Zuzendaria	1	0	0
Osasun kudeaketako teknikaria	1	1	1
Biologo klinikoa	1	1	1
Laguntzako ez den ataleko burua	1	0	0
Erizaintza Unitateko burua	1	0	0
<b>Guztira</b>	<b>53</b>	<b>13</b>	<b>12</b>

Ikus daitekeen bezala, lanpostuen ehuneko 57 OLT-EUDei eta LTEei dagozkie; azken horietatik ehuneko 46 hutsik daude, baina guztietan daude langileak. 2015ean, lanpostu horiek guztiak odolarekin lotutako jardueraren kudeaketari atxiki zitzaizkion, salbu eta biologo klinikoaren lanpostua bete zuenera eta LTE batena, zeinak ehunekin lotutako jarduerari lotuta baitzeuden. Ehunak erauzi eta gero inplantatzea dakartzan prozesuan NOEBetik kanpoko langileek ere esku hartzen dute; esate baterako, Nafarroako Ospitaleguneko transplanteen ospitale-koordinatzaileak eta Oftalmologiako eta Traumatologiako zerbitzuetako langileak, erauzitako ehunaren arabera.

## II.2. ORGANOEN EMATEA ETA TRANSPLANTEA NAFARROAN

Lehenbizi, nabarmendu beharra dago ezen, alde batera utzita NOEBek eskumen hori duen ala ez, organoen ematerako eta transplanterako antolamendu-egitura ia bera izan dela aztertutako aldi osoan; honako hauek osatuta dago: koordinatzaile autonomiko bat; Nafarroako Ospitaleguneko transplanteen eta ehunen ospitale-koordinatzaile bat, 2015eko amaieratik (lehenago bat zegoen Nafarroako Ospitale-rako eta beste bat Bideko Ama Birjina Ospitalerako); CUNeko ospitale-koordinatzaile bat, eta Organo-emateen eta Transplanteen Aholku Batzorde bat.

Aipatutako langile koordinatzaileez aparte, organoen detektatze-, mantentze- eta erauzte-prozesuan honako zerbitzu edo lantalde hauetako langileek hartzen dute parte: Zainketa Intentsiboen Unitatea, Neurologia, Erradiologia, Kardiologia, Kirurgia Orokorra, Analisi Klinikoak, Mikrobiologia, Larrialdiak, Anestesia eta Ebakuntza-gela Zentrala. Halaber, inplantea egin behar duen zentrorako organoak garraiatzeko prozesuan, gehienetan, SOS Nafarroako langileek eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko langileek esku hartzen dute.

Txosten honen azterketaren xedea den aldiaren ondoren gertatutako egitate garrantzitsua delakoan, 69/2016 Foru Aginduaren onespina aipatu behar dugu. Arau horrek Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen ditu, eta arestian aipatutako egiturari Transplanteen Batzorde Teknikoa gehitzen dio; gainera, emateei eta transplanteei buruz egin beharrekoak informazio-sistemak edo -erregistroak ezartzen ditu<sup>1</sup>, bai eta esparru honekin lotutako Europako zuzentarauei erreparatuta ezarri beharrekoa den kalitate- eta segurtasun-programaren edukia ere.

Organoen detekzioarako, ematerako eta erauzterako prozedura bera izan da NOEBek eskumen hori izan duenean zein izan ez duenean, eta TENen kalitaterako eta segurtasunerako esparru-programan oinarritzen da.

Honako hauek izan daitezke organoak lortzeko iturriak: emaile bizia (giltzurrunekoa edo, oso gutxitan, gibelegoa) edo emaile zendua. Azken kasu horixe da gehienetan gertatzen dena eta nagusiki heriotza entzefalikoak edo bihotzeko heriotzak (asistolia) eragiten dute. Azken aukera hori nabarmen handitu da Nafarroako Ospitalegunean azken urteetan, eta berekin ekarri du emateen kopuruak, aldi horretan, gora egin izana.

Nafarroan organoen erauztea soilik Nafarroako Ospitalegunean eta CUNen egiten da (baldin eta balizko emaile bat detektatzen badute), eta zentro horietako langileek edo organoa inplantatu behar duen zentroak berak egiten dute, erauzitako organoaren arabera, lortutako organoak Nafarroako, beste autonomia erkidego batzuetako edo are beste herrialde batzuetako itxarotzerrendan dauden gaixoei transplantatu ahal zaizkie. Halaber, Nafarroan itxarote-zerrendan dauden gaixoek aipatutako jatorriak dituzten organoak jaso ahal dituzte.

Nafarroako itxarote-zerrendako gaixoei egin beharreko transplanteak CUNen egiten dira (giltzurruna, gibela eta bihotza), eta entitate horrekiko itun baten bidez arautzen dira; inplantatu beharreko organoa birika bat bada, giltzurrunaren eta pankrearen transplante mistoa bada edo hartzailea haur bat baldin bada, transplantea erreferentziako beste ospitale publiko batzuetan egiten da.

Osasuneko kontseilariaren 74/1999 Foru Aginduak, zeina 172/2013 Foru Aginduaren bidez aldatu baitzen, ezartzen du kopuru finko bat ordainduko dela egintza bakoitzeko, langile horiek egiten duten lana konpentsatzeko, beti beren ordutegiaz kanpo egiten baitute; berariazko arau horrek ezartzen du, halaber, ehunen detekzio- eta erauzte-kasuetan zenbat jasoko den egintza bakoitzeko.

Ezarritako kopurua aipatutako zerbitzuen artean banatzen da, Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari-tzaren eta transplanteen koordinatzailearen oniritziarekin, organoen kasuan, eta NOEBeko zuzendari-aren eta transplanteen koordinatzailearen oniritziarekin, kasu honetan.

<sup>1</sup> Informazio-sistemak honako hauek osatuko dituzte: emate-transplante prozesurako baimendutako zentro eta zerbitzuen erregistroa; transplanteetarako itxarote-zerrendetan dauden gaixoen erregistroa; emateen eta transplanteen erregistroa; hezur-muinaren emaileen erregistroa; biozaintzaren erregistroa, eta kostuen ebaluaziorako kontabilitate-sistemak.

Gainera, bai autonomia erkidegoko koordinatzaileak, bai Nafarroako Ospitaleguneko ospitale-koordinatzaileak hilero osagarri finko bat jasotzen dute nominan, "produktibitate-osagarria" deitutakoa. Aztertutako aldian hileko 650 euro baino gehixeago da.

Beste gastu aipagarri bat da larunbat, igande eta jaiegunetako guardia lokalizatuei lotutakoa: erizaintzako kolektiboena (7,28 euro orduko), erizaintzako laguntzaileena (4,66 euro orduko) eta zeladoreena (4,66 euro orduko). Langile horiek, gainera, aparteko produktibitate-osagarri bat jasotzen dute lanegun batean egindako erazte bakoitzeko: 476 euro pertsonako OLT-EUDen kasuan, 352 euro pertsonako erizaintzako laguntzaileen kasuan eta 315 euro pertsonako zeladoreen kasuan. Osagarri hori eta guardia horiek 2011. urterako itxarote-zerrendak murrizteko jarduera bereziko programa batean onetsi ziren.

Azkenik, organoak erazten dituen lantaldeko zirujauak guardia lokalizatuengatikoa osagarri bat kobratzen dute, kontuan hartu gabe asteko zein egunetan egiten duten. Guardia horien jarduerak, organo-erazteez gainera, ospitaleratuta dauden gaixoak eta larrialdiak artatzea jasotzen du. Guardia horien ordainketa 1996an onetsi zuen Nafarroako Ospitaleko Langileriaren Zuzendaritzak.

### III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Parlamentu-eskaera kontuan hartuta, honako hauek izan ziren lan honen helburuak:

- NOEBi buruzko honako alderdiak aztertzea, 2011-2015 aldian: aurrekontu-betearaztea, langileak, jarduera eta prozedurak.
- Plasma zatikatzeko lanen kudeaketa fiskalizatzea.
- Honako hauek aztertzea: HLA laborategiaren egungo egoera, egiten duen jarduera eta probak kanpoko enpresetara eramateak dakarren gastua.
- Nafarroako Foru Komunitateko organo-ematerako eta -transplanterako prozedura eta harekin lotutako jarduera berrikustea.
- Odolarekin, ehunekin eta organoekin lotutako jardueran Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa betetzen den egiaztatzea.

Lana burutu da Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitakoak eta Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutakoak diren sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz; horien artean, aplikatu dira "Fiskalizazio operatiboari buruzko oinarriko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 300 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazioaren oinarriko printzipioak" izeneko 400. araua.

Gure lana egiteko, funtsean, honako informazioa aztertu dugu:

- NOEBekin zuzenean lotutako partiden aurrekontu-betearaztea, 2011-2015 aldian.
- 2011-2015 aldiari dagozkion bederatzin inbertsio-espediteren lagin bat, guztira 191.559 euro egiten dutenak.
- Foru Administrazioaren zerbitzuko langileen 2011-2015 aldirako plantilla organikoak.
- NOEBen odola eta ehunak lortu, tratatu eta banatzeko prozedurak.
- Zentroari aplikatzekoa zaion araudia.
- Plasma zatikatzeko lana kontratatzeko egindako esparru-akordioak.
- Nafarroako Foru Komunitatean eta Euskal Autonomia Erkidegoan organo-ematerako eta -transplanterako ezarritako protokoloak.
- Organo eta ehunen detekzioarekin, ematearekin eta eraztearekin lotutako ordainsariak.
- Immunologiako laborategiari eta CUNekin transplanteak egiteko dagoen itunari lotutako gastu-aurrekontuko partida batzuen betearaztea.
- Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa dela-eta dauden jarduketa-prozedurak eta egin diren auditoriak, fiskalizazioaren xedearen esparruan.

Lan hau egitean eragin duten **mugak** honako alderdi hauekin dute zerikusia:

- *NOEBi lotutako gastuak*

NOEBen 2011-2015 aldirako aurrekontu-programaren gastuak zenbatetsi ditugu, bai eta ADONArekin sinatutako hitzarmena ere. Odol-ateratzeetarako autobusa Nafarroan barna gidatzen duen pertsonaren soldata Lehendakaritza Departamentuari egozten zaio, eta ez da gure kalkuluetan sartu. Ez dakigu NOEBek bestelako gasturik duen, beste aurrekontu-programa batzuetan erregistratuta daudenak, baina uste dugu ez liratekeela aipagarriak izanen, eta, horrenbestez, ez lituzketela lotutako ondorioak aldatuko.

- *Aurrekontu-programaren gastua nola banatzen den odolaren eta ehunen jardueren artean*

Gaur egun, O-NOZek lanean jarraitzen du sortutako zentroi kostuak esleitzeko bidea ematen duen aplikazio informatikoarekin. Ehunen eta odolaren jarduera kostu desberdinak dituzten hainbat zentrori egozten zaie; horrenbestez, horietako bakoitzaren gastuak lortu ditugu. Islatutako gastuen barruan, ehunei dagozkien batzuk egon daitezke odolaren jarduerari egotzita daudenak; nolahi ere, uste dugu ez direla garrantzitsuak izanen eta ez lituzketela gure lanaren ondorioak aldatuko.



**IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, baita antzeman diren balizko hutsuneak hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

**IV.1. NOEBen ALDERDI OROKORRAK***Aurrekontu-betearaztea*

NOEBen aurrekontu-programari dagozkion gastuak eta diru-sarrerak honako hauek izan ziren 2011-2015 aldian:

**Gastuak**

Kapitulua	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
1. Langile-gastuak	2.488.527	2.323.319	2.376.984	2.394.981	2.388.480	-4	-0,3
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	2.877.373	2.685.417	2.517.896	2.651.165	2.542.397	-12	-4
6 Inbertsioak	89.615	50.000	24.300	13.640	159.680	78	1.071
Programako gastuak, guztira NOEB	5.455.515	5.058.736	4.919.880	5.059.786	5.090.557	-7	0,6

**Diru-sarrerak**

Kapitulua	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	840.622	989.135	1.046.924	1.063.196	953.881	13	-10
4 Transferentzia arruntak	-	-	12.316	-	12.341	-	-
Programako diru-sarrerak, guztira NOEB	840.622	989.135	1.059.240	1.063.196	966.222	15	-9

Aztertutako aldian, urteko batez bestek gastua 5,12 milioi eurokoa izan da diru-sarrerak, beriz, milioi bat euro ingurukoak izan dira.

Gastuen ehuneko 52 ondasun arruntei eta zerbitzuei dagozkie, eta funtsean honako hauei dagozkie: plasma zatikatzeko kanpoan kontratatutako lanei (kapituluko guztizkoaren ehuneko 36), material suntsigarriari (ehuneko 29) eta erabilitako erreaktiboari (ehuneko 23); bestalde, gastu guztien ehuneko 47 langileei dagozkie, eta gainerakoa, beriz, garrantzi txikiko inbertsioei.

Diru-sarrerak, funtsean, odol-osagaien eta odolirik eratorritako produktuen salmentatik heldu dira; horretaz gainera, Osasun eta Kontsumo Ministeriotik jasotako munta txikiko diru-sarera batzuk badaude, 2012ko Hezur-muinaren Emaileen Plan Nazionaleko laguntzen eta zentro baimenduak ehunak banatzearen kontzeptuan jasotakoak.

Nafarroako Ospitaleguneak kostuak direla-eta zentzuzko esleitzen diena kontuan hartuta, ehunen atalari dagozkion guztizko gastuen zatia lortu dugu; gainera, identifikatu ahal izan dugu diru-sarreretatik zein zati datorren jarduera horretatik. III. atalean aipatu den bezala, gastu batzuk egon daitezke hemen jaso ez direnak, baina gure ustez garrantzi gutxiak izan dira eta ez lituzkete ateratako ondorioak aldatuko. Hona hemen lortutako emaitzak:

## Gastuak

Kapitulua	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
1 Langile-gastuak	20.357	57.109	69.403	83.941	93.814	361	12
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	185	17.441	34.634	9.149	76.743	41383	739
6 Inbertsioak	0	35.226	1.014	262	59.727	-	22697
<b>NOEBek izandako gastua, guztira (ehunak)</b>	<b>20.542</b>	<b>109.776</b>	<b>105.051</b>	<b>93.352</b>	<b>230.284</b>	<b>1021</b>	<b>147</b>
NOEBen gastuen guztizkoaren gainean (%)	0,4	2	2	2	5	-	-

## Diru-sarrerak

Kapitulua	2011	2012	2013	2014	2015	2015/2011 aldea (%)	2015/2014 aldea (%)
3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	0	0	0	943	3.813	-	304
<b>NOEBek guztira jasotako diru-sarrerak (ehunen atala)</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>943</b>	<b>3.813</b>	<b>-</b>	<b>304</b>
NOEBen diru-sarreraren guztizkoaren gainean (%)	-	-	-	0,1	0,4	-	304

Ikus daitekeen bezala, bai ehunen jarduerara bideratutako gastuak, bai horiek sortutako diru-sarrerak garrantzi gutxikoak dira NOEBen guztizkoan, eta aurrekontu-programa ia osoa odolaren jarduerarako da.

Bederatzi inbertsio-espeditente aztertu ditugu, eta gure iritziz, oro har, kontratazioaren arloan aplikatzekoa den araudia bete da; kontratuen zenbateko txikiak eragin zuten haiek guztiak Euro-par Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura negoziatuaren bidez gauzatzea. Langileen gastua eta ondasun arruntak eta zerbitzuen gastua (plasma zatikatzeko lana), zeina aipagarriagoa baita, txosten honen beste atal batzuetan aztertzen dira.

Egindako lanetik ondoriozta dezakegu ezen NOEBen aurrekontu-programako gastu eta diru-sarrera guztiak zentro honi dagozkiola; halere, Ganbera honek aurretik egin dituen beste txosten batzuetan aipatu bezala, aurrekontu-partidetan sartu ez diren gastu batzuk badaude. Honako hauek dira, hain zuzen: Nafarroako Emaileen Elkartearekin (ADONA) egindako hitzarmenetik datorren diru-laguntza eta odol-ateratzeak egiteko Foru Komunitatean barna autobusa gidatzen duen pertsonaren soldata.

Halaber, egiaztatu dugu ehun jakin batzuk erosi behar izan zirenak, aztertutako aldiaren Traumatologia eta Oftalmologia Zerbitzuak inplantatu beharrekoak; izan ere, NOEBek haiek tratatu eta kontserbatzeko behar ziren baliabideak falta zituen.

ADONARENTZAKO diru-laguntzak, batez beste, 379.000 euroko gastua eragin zuen aztertutako aldiaren. Diru-laguntza horren zenbatekoa urtetik urtera aldatzen da, sustapena dela-eta aurkeztutako programaren aurrekontuaren arabera eta elkarteak beste diru-sarrera batzuk lortu izateari begiratuta, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Adonarekiko hitzarmena	532.000	376.586	400.000	340.000	246.586	-54	-27

Aztergai dugun aldiaren Traumatologia Zerbitzuak erabil zitzan kanpoko enpresei erosi zitzaizkien ehunen gastua honako hau izan zen:


	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Ehunak erostea	339.900	254.147	274.130	475.438	395.072	16	-17

2016ko bigarren hiruhilekotik aurrera, NOEBek ehunen tratamendurako eta kontserbaziorako behar dituen baliabideak badauzka; hori dela eta, jada ez du zertan haiek kanpoan erosi.

Azkenik, nabarmentzekoa da 2016an NOEBek utzi diola aurrekontu-programa zehatz bat edukitzeari, eta Nafarroako Ospitaleguneari dagokionaren barruan egotera iragan dela.

#### Jarduera eta prozedurak

NOEBek egiten duen jarduera honako prozesu-mapa honetan laburbiltzen da:



Aurreko irudiak erakusten du prozesu operatiboak funtsean odolera eta ehunetara bideratuta daudela. 2. eta 3. eranskinek bai odola, bai ehunak lortu, tratatu eta banatzeko erabili diren prozeduren xehetasunak erakusten dituzte; bestalde, 4. eranskinak hezur-muinaren emalea izateko ezarritako prozedura eta hura egiazki ematekoa azaltzen ditu; bereiz jaso ditugu beren berezitasuna dela eta.

Hona hemen NOEBek 2011-2015 aldian izan duen jarduerarekin lotutako adierazle aipagarri-enetako batzuk; horietatik gehienak O-NOZen oroitidazkietan jasota daude:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Azken 3 urteetan aktiboan egon diren odol-emaileak	21.411	22.959	21.945	20.985	20.595	-4	-2
Urtean odola eman duten emaileak	15.305	15.723	14.826	13.752	14.242	-7	4
Odo-emaile berrien kopurua	1.713	1.709	1.579	1.313	1.581	-8	20
Edol-emateak, guztira:	29.388	28.417	25.450	24.118	25.659	-13	6
Aferesia	1.506	393	153	282	609	-60	116
Autotransfusioak	949	543	273	195	125	-87	-36
Odol-emate arruntak	26.933	27.481	25.024	23.641	24.925	-7	5
Emaille bakoitzeko emateen indizea	1,86	1,77	1,70	1,74	1,73	-7	-1
Nafarroako emaileen kopurua/emateko adinean dauden pertsona guztiak (%)	5,2	5,3	5,3	5,2	5,2	-	-
Odola ateratzeko itxarote-denbora (minutuak)	6,2	3,6	11	5,6	9,5	53	70
Emaileen gogobetetze-maila:							
Espero zuena baino hobea	62,9	56,6	48,1	32,4	33,5	-47	3
Espero zuena	37,1	43,4	50,7	67,5	65,4	76	-3
Espero zuena baino okerragoa	-	-	1,2	0,1	1,1	-	1.000
Odol-emateetatik lortutako unitateak:							
Auto-transfusiorako	1.185	758	494	451	417		
Hematieak	26.743	27.369	24.815	23.392	24.590	(1)	(1)
Plaketak	3.234	3.912	3.151	3.039	3.807		
Plasma	29.184	28.924	25.029	23.774	25.333		
Odol-emateetatik banatutako unitateak:							
Auto-transfusiorako	921	548	268	190	127		
Hematieak	26.067	26.391	24.578	23.146	24.317	(1)	(1)
Plaketak	2.972	3.631	2.988	2.918	3.651		
Plasma	26.914	26.382	23.885	22.964	23.977		
Hezur-muinaren emaileak							
Nafarroako hezur-muinaren egiazko emateak	5.683	7.950	9.441	10.216	10.244	80	0,3
	0	0	0	3	5	-	67
Hezur-muinaren transplanteak Nafarroan	19	21	14	12	12	-37	-
Ehunen benetako emaileak	(2)	8	17	26	29	-	12
Lortutako ehunak:							
Korneak	(2)	16	32	42	58	(2)	38
Ehun osteotendinosoko piezak		0	24	227	59		-74
Kontserbatutako ehunak:							
Garezur-gangak	(2)	0	0	17	14	(2)	-18
Inplantatutako ehunak:							
Korneak	(2)	10	18	28	48	(2)	71
Ehun osteotendinosoko piezak		0	0	40	79		98

(1) Odol-emateetatik lortutako unitateek eta produktu motaren arabera erabilitakoek ez dute zertan bolumen berekoak izan; hori dela eta, gure iritziz, zenbatekoak ez dira homogeneousak eta, horrenbestez, ez dugu haiek direla-eta urtetik urterako aldean adierazlerik atera.

(2) 2011n hasten dira ehunekin lan egin ahal izateko jarduketak; urte horretan, beraz, ez dago jarduerarik.

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek nabarmendu ditzakegu:

- Aktiboan dauden odol-emaileen kopuruak ehuneko zazpi egin du behera aztertutako aldian, dena den, 2015ean, ikusi dugu ehuneko lauko igoera bat gertatu dela 2014. urtearekiko. Antzeko jokaera bat ikus dezakegu 2015eko emateetan eta emaile berrien kopuruan: ehuneko 13 eta ehuneko zortzi egin dute behera 2011. urtearekin alderatuta, baina ehuneko sei eta ehuneko 20 egin dute gora 2014. urtearekin alderatuta. Nolanahi ere, alde horietan eragina izan dezakete ospitale-zentroek odol-osagaiak direla-eta izan dituzten beharrek.

- Emaileak itxaron beharreko denbora oso aldakorra da, eta odol-emateetarako Nafarroan barna ibiltzen den autobusaren itxarote-denborak baldintzatzen du. Daturik altuena 2013koa da, 11 minutukoa; baxuena, berriz, 2012koa da, 3,6 minutukoa.

- Odoletik lortutako produktuen banaketari erreparatuta, hematien eta plaketen ehuneko 80 zentro publikoetan erabili ziren eta gainerakoak zentro pribatuetan. Plasmaren erabilera txosten honen IV.2 atalean aztertu dugu.

- Aipagarria da hezur-muinaren emaileen kopuruak ehuneko 80 egin duela gora; hezur-muinaren benetako emateek, berriz, goranzko bilakaera dute.

- Ehunekin lotutako jarduera 2012an hastearekin, emaileen kopurua gora egiten joan da; nabarmenezkoa da lortu eta inplantatu diren korneen kopuruak izan duen igoera. Lortu diren ehun osteotendinosoko piezei dagokienez, 2015ean beherakada bat izan da, zeren eta 2014an oso kopuru aipagarria lortu baitzen eta jo baitzen zeuden stockak nahikoak zirela balizko eskaerari erantzuteko.

Nabarmenezkoa da NOEBek, 2011-2015 aldi osoan, ISO 9001 kalitate-egiaztagiria izan duela, bai eta CAT ziurtagiria (Transfusioaren eta Terapia Zelular eta Tisularren arloko Kalitatea) eta Biomat ziurtagiria ere (zatikatze-lanetan diharduen enpresak erabilitako plasmaren kalitatea). Ziurtagiri horiek 2016rako berriitu ditu.

Gainera, aplikazio informatiko bat badu bere kalitate-kudeaketarako sisteman jasotako alderdi guztiak garatzeko; aplikazio horrek erraztu egiten die urteko jarraipen sakon eta xehakatu egitea. Sistemaren berrikuspen horrek aukera ematen du NOEBek arloen urteko analisi bat egin dezan, betiere hobekuntza helburu. Hona hemen urteko berrikuspen horietan lortu diren emaitza garrantzitsuenak:

	2011	2012	2013	2014	2015
Lortutako kalitate-adierazleak (%)	85	85	85	92	94
Odol-emaileen gogobetetze-maila (10eko puntuazioa)	9,4	8,6	8,2	7,6	7,6
Odol-emaileen erreklamazioak emate guztien gainean (%)	0,1	0,05	0,03	0,04	0,03

Ezarrirako kalitate-adierazleak neurri handiagoan lortzen joan dira aztertutako aldiak aurrera ahala. Bestetik, emaileen gogobetetze-mailak behera egin du; alabaina, haien erreklamazioek ere behera egin dute.

**Langileak**

Araudiak ezarritako egitura-aldaketa NOEBen plantilla organikoa baldintzatu du. Honako hau izan da plantilla horrek aztertutako aldiaren izan duen bilakaera:

Lanpostua	2011-12-31	2012-12-31	2013-12-31	2014-12-31	2015-12-31
OLT-EUD	19	19	18	17	17
LTE	12	12	13	13	13
Administrari laguntzailea	5	5	5	6	6
Zerbitzu anitzetako langilea	3	3	3	3	3
Sendagilea	3	3	3	3	3
Fakultatibo espezialistaren ondokoa	3	3	3	3	3
Erizaintzako laguntzailea	3	3	3	3	3
Zuzendaria	1	1	1	1	1
Osasun kudeaketako teknikaria	1	1	1	1	1
Biologo klinikoa	1	1	1	1	1
Laguntzako ez den ataleko burua	-	-	-	1	1
Erizaintza Unitateko burua	1	1	1	1	1
Administraria	1	1	1	-	-
Zuzendariordea	1	1	1	-	-
Laguntza-ataleko burua	1	1	1	-	-
<b>Guztira</b>	<b>55</b>	<b>55</b>	<b>55</b>	<b>53</b>	<b>53</b>
Lanpostu hutsak	12	10	12	10	13

Ikus daitekeen bezala, 2015ean, lanpostuen kopuruak ehuneko lau egin du behera 2011rekin alderatuta; lanpostu hutsak 13 dira –aztertutako aldiko kopuru handiena–.

Honako hauek dira lanpostu hutsen bilakaera eta lanpostu bakoitzaren betetzea:

Lanpostua	2011		2012		2013		2014		2015	
	Lanpostu hutsen kopurua	Betetako lanpostu hutsak	Lanpostu hutsen kopurua	Betetako lanpostu hutsak	Lanpostu hutsen kopurua	Betetako lanpostu hutsak	Lanpostu hutsen kopurua	Betetako lanpostu hutsak	Lanpostu hutsen kopurua	Betetako lanpostuak
Sendagilea	0	0	0	0	0	0	0	0	1	1
Osasun kudeaketako teknikaria	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Biologo klinikoa	1	1*	1	1	1	1	1	1	1	1
OLT-EUD	5	5	4	4	5	5	1	1	1	0
LTE	1	1	1	1	2	1	6	6	6	6
Administrari laguntzailea	3	3	1	1	1	1	2	2	2	2
Zerbitzu anitzetako langilea	0	0	0	0	0	0	0	0	1	1
Laguntza-ataleko burua	0	0	1	1	1	1	0	0	0	0
Administraria	1	0	1	0	1	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>12</b>	<b>10</b>	<b>10</b>	<b>9</b>	<b>12</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>11</b>	<b>13</b>	<b>12</b>

\* 2011ko irailaren amaieratik beteta dagoen lanpostua.

Aztertutako aldiaren, lanpostu hutsen batez besteko okupazio-maila ehuneko 88koa da; horrek esan nahi du lanpostu horiei esleitutako zereginak direla-eta beharizan iraunkorra dagoela.

Aurrez aipatu den bezala, ehunekin zuzenean lanean diharduten langileak biologo klinikoa bat eta LTE bat dira; gainerakoek odolarekin lotutako jardueretan egiten dute lan; halere, laguntza-

koak ez diren kudeaketa-lanpostuetan lanaldiaren zati bat ehunekin zerikusia duten lanetan ematen dute.

Aurrekoaz gainera, plantillan jaso gabe dauden egiturazko lanpostu batzuk badaude: sendagile bat (arratsaldez betetzen da lanpostu hori, ehuneko 60,03ko lanaldiarekin), hiru OLT-EUD (arratsaldez betetzen dira lanpostu horiek ehuneko 47,66ko lanaldiarekin) eta Tuteran dagoen administrari laguntzaile bat (goizez beteta dago lanpostua, ehuneko 55,17ko lanaldiarekin).

#### IV.2. PLASMA ZATIKATZEKO LANEN KUDEAKETA

Plasma odol-emateetan lortzen diren produktueta bat da. Erabilera klinikorako erabil daiteke, baina zatirik handiena "hemoderibatuak" (VIII. faktorea, immunoglobulinak, albuminak eta abar) lortzeko erabiltzen da. Produktu horiek asko erabiltzen dira tratamendu eta aplikazio terapeutikoetan eta funtsean erabiltzen dira aukerako tratamendurik ez duten gaixo kronikoen bizi-baldintzak eta -itxaropena hobetzeko. Hemoderibatuak lortzeko prozesuari "plasma zatikatzea" deitzen zaio, eta industria farmazeutikoan egiten den prozesu bat da.

Ondoren erakutsiko dugu Nafarroako emaleengandik lortutako plasma zertan erabili den, aztertutako aldian, guztira erabilitako unitateen kopuruaren gaineko portzentajearen emanda:

	2011	2012	2013	2014	2015
Erabilera klinikorako erabilitako unitateak					
Zentro publikoak	% 7	% 6	% 9	% 12	% 11
Zentro pribatuak	% 2	% 3	% 4	% 3	% 3
Hemoderibatuak lortzeko zatikatze-lana egiteko bidali diren plasma-unitateak	% 91	% 91	% 87	% 85	% 86

Ikus daitekeen bezala, aztertutako aldian lortutako plasmaren ehuneko 88 inguru zatikatze-lana egin eta hemoderibatuak lortzeko bidaltzen da.

Espanian –Nafarroa ez da horretan salbuespena– hemoderibatuen eskaera handiagoa da emale altruisten plasma zatikatutik ateratzen diren hemoderibatuen kopurua baino; horrek esan nahi du horrelako produktuak erosi behar zaizkiela plasma emaleei ordainduz lortzen duten enpresei, horrek prezioan daukan eraginarekin. Erabiltzen diren hemoderibatu guztien ehuneko 50 inguru odol bankuetatik igorritakoa da eta beste ehuneko 50a erositakoa da, eta kostu handiagoa du.

Gaur egun, Espainian plasma zatikatze jarduera egiteko baimena duen enpresa bakarra dago; dena den, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak jada izapideak hasi ditu beste enpresa batzuk baimentzeko eta Estatu mailako lehiaketa zentralizatu bat sustatzeko. Nafarroan, aztergai dugun aldian, bi esparru-akordio egon dira enpresa horrekin: bata 2011-2014 aldirako eta bestea 2015-2018 aldirako.

Plasma zatikatze jarduera dela-eta egin diren bi esparru-akordioak aztertuta, ondoriozta dezakegu ongi bete zutela, oro har, aplikatzekoa den araudia.

Bestetik, ordainpeko emateen plasmatik lortutako hemoderibatuak merkaturatzen dituzten enpresa bat baino gehiago dago. O-NOZen ospitale-zentro guztiek honako prozedura hau jarraitu dute produktu horiek erosteko: zatiketa-lanean diharduen enpresa bakarrari eskaera egiten zaio eta, behin stockak amaituta, enpresa horri zuzeneko erosketa egiten zaio, kontratazioari buruzko araudia aplikatu gabe. Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago ezen O-NOZeko Farmazia Zuzendariordetza, berriki sortu dena, lanean ari dela bere prozedurak Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeari egokitzeko, Nafarroako Gobernu Kontu-hartzaitza Nagusiak farmakoak erosteko erabilitako prozesuei buruz egindako auditoria eta gero.

Hona hemen esparru-akordioetatik eta bertako plasmatik ez datozen hemoderibatuen erosketatik heldutako gastuak:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Plasma zatikatzea	850.171	573.754	710.516	935.285	911.256	7	-3
Hemoderibatuen erosketa	866.192	1.108.565	1.649.529	1.830.138	1.594.949	84	-13

Zatikatzeko-lanean batez beste egin den gastua 800.000 euro ingurukoa izan da aztertutako al-dian, eta hemoderibatuen erosketatik heldutakoa, berriz, 1,4 milioi eurokoa. Nabarmenezkoa da azken gastu horrek ehuneko 84 egin duela gora aztertutako al-dian, horrelako produktuen eskaerak izan duen gorakadaren ondorioz; halere, ehuneko 13 jaitsi zen 2014ko datuarekin alderatuta.

#### IV.3. IMMUNOLOGIAKO LABORATEGIA (HLA PROBAK)

Ganbera honen aurreko txosten batzuetan azaldu genuen bezala, proba hauekin lotutako jarduera, 2010eko martxora arte, NOEBen egiten zen; gero, beharrezkotzat jo zen haren atxikipena aldatzea eta laborategi hori Nafarroako Ospitaleguneko Hematologia Zerbitzuaren menpe jartzea; izan ere, haren jarduera ez zen NOEBeko emaitzentzat, hartzaileak beste gaixo batzuk baitziren hein handi batean.

Hartara, 2010eko martxotik 2011ko azarora bitartean, Nafarroako Ospitaleguneko eta, beraz, Hematologia Zerbitzuko laborategiak bateratzeko prozesua egiten zen bitartean, kanpoko enpresa batzuk aritu ziren laborategi horri zegozkion probak egiten, salbu eta NOEBeko hezur-muinaren emaitzei egin beharreko analisiak.

Behin behar zen espazioa prestatuta eta ekipamendu egokia erosituta, laborategiak bateratu ondoren, laborategiak bere jarduera immunologo batekin hasi zuen; gero, 2012ko azaroan, Hematologia Zerbitzuko teknikari bat gehitu zitzaion.

Jarduera, funtsean, hiru motatako analisiak egitean zetzan –horiek pixkanaka bere gain hartzen joan dira–; gaur egun, honako hauek egiten jarraitzen da: gaixotasun batzuen existentzia zehazteko probak; hematologiarekin lotutako probak, hezur-muinaren transplante-kasuetan egiten direnak; eta, azkenik, hezur-muinaren emaitzen laginen analisia, haiek REDMO delakoan sartu ahal izateko. Zehazki, honako hau izan da jarduera horren bilakaera:

	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2012	Aldea (%) 2015/2014
HLA gaixotasunak	0	2.172	2.871	2.547	-	-11
HLA hezur-muinaren transplantea	28	59	46	200	614	335
HLA REDMO	675	1.126	1.063	1.085	61	2
Bestelakoak	0	0	64	27	-	-58

Taulak erakusten du jarduerak gora egin duela Hematologia Zerbitzuari atxiki ondoren; hain zuzen ere, jarduera pixkanaka bere gain hartzen hasi denetik.

Honako hau izan da analisi horiek aztertutako al-dian egiteko modua:

- HLA probak, gaixotasunekin zerikusia dutenak: analisi mota hori kanpoko enpresa batek egin zuen 2013ko martxora arte, esparru-akordio baten bitartez. Esparru-akordio hori dela-eta honako gastu hau izan du Nafarroako Ospitalegunek:

	2011	2012	2013	2014	2015
Gastua	43.546	135.801	10.800	-	-
Proba kopurua	849	2.744	330	-	-

Ikus daitekeen bezala, aipatutako enpresak 2013tik aurrera ez du probarik egin, O-NOZen laborategiak hartu baitu jarduera guztia.



- Hezur-muinaren transplanteekin lotutako HLA probak: 2013ra arte, analisi horiek bai Nafarroako Ospitaleguneko laborategiak, bai kanpoko enpresa batek egiten zituzten (enpresa hori zuzenean kontratatzen zen). Urte horretatik aurrera, berriz, Nafarroako Ospitaleguneko laborategiak egiten ditu, baina proba jakin bat edo beste zuzenean kanpoan kontratatzen du, kanpoko enpresa horrek egin dezan. Ondoren azaldu ditugu jarduera horri eta enpresa horren gastuari buruzko datuak:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Gastua	59.824	43.493	40.267	8.104	5.850	-90	-28
Proba kopurua	310	242	183	32	18	-94	-44

2011rako, 2012rako eta 2013rako adierazitako gastuak aurreko urtean egindako probei dagozkien zenbatekoak biltzen ditu.

- HLA probak, REDMOn sartzeko: immunologiako laborategiak egin izan ditu beti.

Organo-emateari eta transplanteari dagokionez, honako hau aipatu behar dugu: organoa hartzaile izateko izangaiekin bateragarria den zehazteko, “emailearen profila” (cross-match, HLA tipajeari buruzko analisia, serologiak, B-gonadotropina korionikoa –beta HCG–, ganglio-lagina eta odol-taldea) izeneko analisi batzuk egin behar dira. Bestetik, organo-erazteak ebakuntza-gelen ohiko lan-ordutegitik kanpo egiten dira. Gaur egun Nafarroako Ospitaleguneko Immunologiako Laborategiak dauzkan langileak ez dira nahiko ordu-tarte horiek betetzeko; horrenbestez, probak CUNek egiten ditu. Entitate horrekin ezarritako hitzarmenean, analisi horiek 348,18 euroko tarifa dute, eta transplanteez aparte fakturatzeko dira.

#### IV.4. ORGANOEN EMATEA ETA TRANSPLANTEA NAFARROAN

##### *Jarduteko prozedura*

Nafarroan, organoak detektatu, mantendu, eman, erauzi eta inplantatzeko dagoen jarduketa-protokoloa TENk ezarritakoan oinarrituta dago, eta Lurraldearteko Kontseiluak onetsi zuen. Kontseilu horretan, autonomia erkidego guztiak daude ordezkaturik, eta guztiak aplikatzen dute protokoloa. Prozedura horixe da 17232/2012 Errege Dekretuak zehazten duena.

Prozedura horren xehetasunak txosten honekin batera doan 5. eranskinean kontsulta daitezke. Laburbildurik, honako oinarritzko prozesu hauek osatzen dute prozedura:

- O-NOZeko edo CUNeko, kasua bada, transplanteen lantalde koordinatzaileak balizko emalea detektatu eta baloratzea.
- Emailea detektatu den zentro berean mantentzen da.
- Senideekin elkarrizketa bat izaten da, haien baimena lortzeko; aurrez, baimen judiziala behar da, heriotza “ez naturala” izan bada.
- Datuak TENen aplikazio informatikoan (CORE) sartu; aplikazio horrek aztertzen du ea “0 larrialdirik” dagoen ala ez<sup>2</sup> nazio mailako balizko hartzaile baterako, edo PATHI<sup>3</sup> programan hartzaile bateragarri ote dagoen, giltzurrunen kasuan.
- TENek koordinatzailearekin hitz egitea, baliagarri dauden organoen erabilerari buruz informatzeko.
- Organoen eraztea koordinatzea, kontuan hartuta kasuan kasuko erreferentziako ospitaleko lantalde inplantatzailea Nafarroako Ospitalegunera edo, kasua bada, CUNera etorriko dela organoak eraztera, giltzurrunaren eta gibelaren kasuan izan ezik, horiek beti Nafarroako Ospitaleguneko langileek erazten baitituzte.

<sup>2</sup> Jotzen da hartzaile bat egoera horretan dagoela nazioko lurralde osoan organo bat jasotzeko lehentasun erabatekoa badu.

<sup>3</sup> Gaixo hiperimmunizatuek transplanterako sarbidea izateko programa, zeina bideratuta baitago kolektibo horrek giltzurruneko transplantea lortzeko aukera handiagoak izatera.

- Organoen garraioa koordinatzea 112 SOS Nafarroarekin, zeinak gehienetan Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuarengana jotzen baitu (edo Foruzaingoarengana, kasuren batean), airetaxi-ekin edo taxiarekin, kasua bada.

- Zentro inplantatzaileak itxarote-zerrendako hartzaile egokiena hautatzea, ospitale-koordinatzailea bertan dela, aurrez zehaztuta dauden parametro kliniko batzuen arabera. Horri dagokionez, aipatu beharra dago TENek onetsitako irizpide orokor batzuk badaudela bihotzerako, birikarako, gibelerako eta pankrearako, eta horiek autonomia erkidego bakoitzak zehazten dituela.

- Organoa inplantatzea CUNen edo kasuan kasu, organoaren arabera, dagokion erreferen-tziako ospitale publikoan, baldin eta organoaren hartzailea Nafarroako itxarote-zerrendako gaixo bat baldin bada; hala ez bada, dagokion ospitalean inplantatzea.

- Hartzailearen datuak sartzea TENen aplikazio informatikoan (CORE), hartara organoen tra-zabilitatea segurtatuz.

Jarduera honetan guztian parte hartzen duten langileak txosten honen II. atalean aipatzen di-renak dira.

Nafarroan organo batzuen transplanterako (giltzurruna, bihotza eta gibela) erabiltzen den lan-kidetzeta-sistema publiko-pribatua berezi samarra da, zeren eta Espainiako gainerako lurraldeetan organoak inplantatzeko TENek baimendutako beste zentro pribatu bat<sup>4</sup> baizik ez baitago.

Ganbera honen iritziz, organoak detektatu, mantendu, eman, erauzi eta inplantatzeko erabil-tzen den prozedura arazoizkoa eta egokia da, TENek ezarritakoari begiratuta. Horrek bermatzen ditu, batetik, organoen trazabilitatea eta, bestetik, organoak, dagozkien txosten klinikoaren arabera, emaile egokienari inplantatuko zaizkiola.

Bestetik, 1/2013 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak, honako hau ezartzen du:

*“Foru lege hau onetsi eta lau urteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Osasun Departamentuaren bitartez, bere buruari beharrezkoak diren bitarteko guztiak eman be-harko dizkio, bai eta behar diren ziurtagiriak ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gaitasuna izan dezan organoak transplantatzeko egin beharreko ebakuntza guztiak segurtasun berme guztiekin egiteko”.*

Ez dago jasota ez aztertutako aldi osoan, ez txosten hau egiteko datan, inongo jarduketarik egin denik. Gaur egungo Osasuneko kontseilaria 2016an agerraldia egin zuen Parlamentuan gai honi buruzko parlamentu-eskaera bati erantzuteko, eta adierazi zuen ez zutela aurreikusita horri buruz ezer egitea, Osasuneko Lurraldearteko Kontseiluak onetsitako transplanteen plangintza-rako irizpideei lotutako arazoi batzuegatik.

<sup>4</sup> Zentroek organoak erauzteko edo inplantatzeko baimena TENek ematen du, jardueraren bolumenaren arabera eta egin-dako jardueraren emaitzen arabera. Baimen horiek gomendioak dira, eta ez dira lotesleak. Autonomia erkidegoak dira horri buruz erabakitzen dutenak.

**Jarduera**

2011-2015 aldian, Nafarroako organo-emateak eta -transplanteak honako bilakaera hau izan du, TENek, Nafarroako Ospitaleguneak eta CUNek emandako informazioaren arabera:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Benetako emaileak Nafarroan	28	16	21	33	42	50	27
Emaileen organoak lortzea Nafarroan:							
Giltzurrunak	42	26	34	52	66	57	27
Gibela	21	12	18	29	29	38	-
Bihotza	7	4	3	4	4	-43	0
Birika	12	2	10	4	13	8	225
Pankrea	1	3	1	2	2	100	-
Nafarroako emaitzen organoen erabilpena:							
Nafarroako itxarote-zerrendako hartzaileak	46	28	28	43	57	24	33
Beste autonomia erkidego batzuetako hartzaileak	23	16	18	32	43	87	34
Baztertutako organoak	14	3	20	16	14	-	-13
Nafarroan (Unibertsitate Kliniketan) transplantatutako organoak							
Giltzurruna	40	32	26	40	49	23	23
Gibela	24	16	24	19	24	-	26
Bihotza	5	5	8	4	6	-71	50
Nafarroako gaixoei Nafarroatik kanpo transplantatutako organoak							
Birika (Santanderko Marqués Valdecilla Ospitalea)	5	2	1	3	3	-40	-
Giltzurruna-pankrea (Bartzelonako Ospitale Klinikoak)	1	4	0	0	1	-	-
Nafarroako itxarote-zerrendan dauden gaixoen- tzako organoen jatorria							
Nafarroako emaitzak	46	28	28	43	57	24	33
Beste autonomia erkidego batzuetako emaitzak	29	31	30	23	26	-10	13

Aurreko datuak aztertu ondoren, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Benetako emaitzen kopuruak beherakada aipagarri bat izan zuen 2012an; urte horretatik aurrera, berriz, nabarmen handitu zen, neurri batean bihotzeko heriotzaren (asistolia) bidezko emaitzen aukera sartu zelako (zazpi emaitza 2014an eta 11, berriz, 2015ean).
- Adierazitako benetako emaitzen artean, honako hauek sartzen dira: emaitza biziak (guztizkoaren ehuneko 19) eta emaitza zenduak (guztizkoaren ehuneko 81). Hona hemen benetako emaitza bizien kopurua eta horiek aztertutako aldian eman dituzten organoak:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Emaitza biziak Nafarroan	7	4	5	4	7	-	75
Emaitza bizien organoak lortzea Nafarroan:							
Giltzurrunak	4	4	2	2	5	25	150
Gibela	3	0	3	2	2	-33	-

Emaitza biziek 2011-2015 aldian Nafarroako itxarote-zerrendako emaitzei inplantatutako giltzurrun eta gibelen ehuneko bederatzi eman zituzten.

- Giltzurruna da gehien erauzten eta inplantatzen den organoa; ondotik, gibela dator.
- Nafarroako itxarote-zerrendako hartzaileei inplantatutako organoen ehuneko 58 erkidego bereko emaitzenak ziren; gainerako ehuneko 42a Espainiako gainerako erkidegoetatik heldutakoak ziren.
- Oro har, organoak detektatu, eman, erauzi eta inplantatzeko jardura handitu egin zen aztertutako aldi osoan. 2016an, joera horri eutsi zitzaion, honako adierazle hauek erakusten duten bezala: benetako emaitzen kopurua ehuneko bost handitu zen, eta lortutako eta inplantatutako organoen kopurua ehuneko hamar eta ehuneko bat handitu ziren, hurrenez hurren.

*Lotutako gastu aipagarrienak*

Jarduera hau guztia aurrera eramateko, O-NOZek hainbat gastu egin zituen; honako hauek dira aipagarrienak: CUNekin transplanteak egiteko hitzarmeneko tarifak; organoen detekzioan, mantentzean eta eraztean parte hartutako langileei egintza bakoitzeko ordaindutakoa; autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzailearen eta Nafarroako Ospitaleguneko ospitale-koordinatzailearen hileko lansari finkoak; osasun arloko aipatutako langileen guardia lokalizatuetatik eta kolektibo horien produktibitate-osagarritik heldutako lansariak, eta CUNek HLA analisisa egitetik heldutakoak.

Nafarroako itxarote-zerrendako hartzaileei erreferentziako ospitale publikoetan egindako transplantei dagokienez, honako hau aipatu beharra dago: Osasun Kohesiorako Funtsaren kudeaketa arautzen duen 1207/2006 Errege Dekretuak ezarri zituen autonomiek batak besteari ordaindu beharreko tarifak, erkidego bateko gaixoak beste erkidego batean artatzen direnean.

Tarifa horiek zehaztuta daude arreta ambulatorko prozesuetarako, ospitaleratzea eskatzen duten prozeduretarako (horren barnean transplanteak direla) eta proba diagnostiko jakin batzuk egiteko.

Teorian, autonomia erkidegoek beren gaixoei beste erkidego batzuetan ematen zaien arreta ordaindu –edo, kasua bada, kobratu– beharko lukete, ezarritako zenbatekoen arabera, halere, gaur egun erkidegoen arteko konpentsazio hori ez da gauzatzen, nahiz eta Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak erkidego bakoitzari bidaltzen dion ordaindu –edo kobratu– beharko lukeenari beharko buruzko informazioa.

Ondoren azaltzen ditugu O-NOZek aipatutako kontzeptu horiek guztiak direla-eta sortutako gastuak, aztertutako aldian, bai eta beste autonomia erkidego batzuei ordaindu beharko zizkien ere, Nafarroako itxarote-zerrendako hartzaileei egindako transplanteengatik:

	(eurotan)						
	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
CUNekin organo-transplanterako dagoen hitzarmena	4.497.486	6.582.174	5.363.948	6.036.844	8.294.595	84	37
Organoak detektatu, mantendu eta erazteगतिको ordainsariak	121.302	69.892	94.702	128.200	150.868	24	18
Zirujauen guardia lokalizatuetatik ordainsariak <sup>(1)</sup>	80.857	84.567	84.236	85.524	74.846	-7	-12
Gainerako langileen guardia lokalizatuetatik ordainsariak	75.096	92.356	83.265	86.398	79.225	6	-8
Aparteko produktibitate osagarria	30.967	14.673	16.770	43.611	54.406	76	25
Koordinatzaileen ordainsariak <sup>(2)</sup>	23.600	21.394	25.393	23.600	22.775	-3	-3
CUNekiko hitzarmena, emailearen profila dela eta	9.749	5.571	7.312	11.490	14.624	50	27
<b>Guztira</b>	<b>4.839.057</b>	<b>6.870.627</b>	<b>5.675.626</b>	<b>6.415.667</b>	<b>8.691.339</b>	<b>80</b>	<b>35</b>
Beste autonomia erkidego batzuentzako konpentsazioa, Nafarroako itxarote-zerrendako hartzaileei egindako transplanteengatik <sup>(3)</sup>	373.013	358.988	62.948	188.844	247.117	-34	31

(1) Guardia horiei lotutako jarduerak ospitaleratutako gaixoen eta larrialdietako arreta ere jasotzen du

(2) 2013tik aurrera, ordainsari horiek ehunen koordinazioari lotutako atala ere biltzen dute.

(3) Zenbateko hori da beste autonomia erkidego batzuei Osasun Kohesiorako Funtsaren bidez ordaindu beharko litzaiekeena.

Organo-emateari eta -transplanteari lotutako guztizko gastuak ehuneko 81 egin du gora aztertutako aldian, jarduera handitu izanaren ondorioz.

CUNekin transplanteetarako dagoen hitzarmena gastuaren osagai handiena da, eta ehuneko 84 egin du gora aztertutako aldian, jarduerak gora egitearen ondorioz, zeren eta tarifa unitarioei eutsi egin baitzaie aztertutako aldian. 2012ko aurrekontu-gastuak 2011ko azken hiruhilekoari dagokiona biltzen du: 1,6 milioi euro dira guztira. Hori dela eta, 2012ko gastu erreala 4,97 milioikoa izanen litzateke, eta 2011koa, berriz, 6,1 milioikoa.

Oro har, organo-transplanteekin lotutako ordainsariak –koordinatzaileenak eta zirujauen guardia lokalizatuenak izan ezik, zeren eta langile gutxiago baitago– gora egin dute halaber, baina aurreko gastuek baino ehuneko txikiagoan.

Koordinazioa dela-eta dauden ordainsariak 23.000 euro ingurukoak dira aztertutako aldian. 2012an eta 2013an desfaseren bat badago, 2012ko gastuaren zati bat hurrengo urtean kontabilizatu baitzen. Txosten honek hatzen duen aldiaren ondorengo egitate gisa, nabarmentzekoa da 2016ko ekainetik aurrera autonomia erkidegoko koordinatzailearen osagarriak gora egin duela eta hilean 1.050 eurokoa dela orain; aldiz, lehengo bi ospitale-koordinatzaileen orde, koordinatzaile bakarra dago gaur egun.

Bestetik, ehunen transplanteari dagokionez, ondoren aipatzen ditugu ehunen detekzioetik eta erauztetik heldutako ordainsariak sortutako gastuak, organoei buruzko araudi berean ezarrita datozenak:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Ehunak detektatu eta erauztegitiko ordainsariak	51.776	38.516	19.909	42.714	29.664	-42	-31

Kasu honetan, ordainsariak behera egin dute aztertutako aldian, zeren eta jardueraren arabera eta ehunen stocken arabera aldatzen baitira.

Organoen eta ehunen emate- eta erauzte-prozesuan parte hartzeagatik jasotako ordainsariak aztertu ditugu, bai eta produktibitate-osagarritik heldutakoak ere, eta honako alderdi hauek nabarmendu ditzakegu:

- Honako hau da ordainsari horiek aurrekontuan erregistratzeko kontabilitate-prozedura: aldi jakin bakoitzeko (seihilekoa, lauhilekoa edo hiruhilekoa), autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzaileak egiaztagiria bat egiten du, eta hartan zehazten ditu egindako egintza guztiak, aipatutako foru aginduaren arabera haiei esleitutako zenbatekoarekin.

Egiaztagiria hori Osasun Departamentuari igortzen zaio, eta hark zenbateko hori transferentzia arruntetarako gastuen 4. kapituluaren kontabilizatzen du, hartzailea Nafarroako Ospitalegunea dela adierazita. Behin zentroak diru-laguntza hori jasota, prozesu horietan parte hartutako ordaintzen die nominan, kopuru hori banatzeko adostuta dagoen irizpide baten arabera.

Egiaztatu dugu aztertutako aldian ordainsariak parte-hartzaileei atzerapenez ordaindu zaizkirela, hilabete eta zortzi hilabete bitarteko atzerapenez hain zuzen. Nabarmentzekoa da azken epeari (2015eko azarotik abendura bitartekoa) dagokion jardueraren ordainketa, zeren eta 2017ko urtarrilean ordaindu baitzen.

- 162/2011 Ebazpenaren bidez, itxarote-zerrendak gutxitzeko lanaldi osagarrietan egindako jarduerarengatik produktibitate bereziko osagarriari dagozkion zenbatekoak ezarri ziren. Ebazpen horretan organoak erauzteko jarduera bereziko programa bat baimendu zen, 2011ko urtarriletik abendura bitarteko aldirako. Ez dago jasota baimen hori berariaz luzatu denik, ez eta hurrengo urteetarako berariazko baimenak eman direnik ere; alabaina, adierazi digutenaren arabera, gastu horiek ordaindu egin ziren eta ordaintzen jarraitzen dira, 2011ko baimenaren luzapen tazitua aplikatzen baita.

Horri buruz Ganbera honek uste du horrelako jarduera bat itxarote-zerrendak gutxitzera bideratutako neurrian artean sartzeari ez dela egokia, zeren eta nekez uler baitaiteke organo-erauzteetan itxarote-zerrendarik egotea. Bestetik, komenigarria litzateke aparteko izaera duten

jarduera batzuei buruzko luzapen tazituak saihestea, programa bakoitzerako behar diren baime-nak eman behar baitira

- Halaber, kontuan hartuta organo-eraztearen jarduera jada arestian aipatutako foru agin-duaren bidez ordaintzen dela, ez dirudi egokia denik produktibitate bereziko osagarri bat esleitzea jarduera horri berari.

#### IV.5. DATUAK BABESTEARI BURUZKO LEGE ORGANIKOAREN BETETZEA

Datuak babesteari buruzko araudiak ezartzen du ezen, maila ertainetik aurrera, datuetarako informazio-sistemetan eta tratamendu- eta biltegitratze-instalazioetan, barruko nahiz kanpoko auditoria bat egin beharko dela, gutxienez bi urtean behin, erakundearen betetze-maila egiaztatze aldera.

NOEBen kasuan, O-NOZen barruan sartzen da; azken horren datu gehienak segurtasun maila altukoak dira. Beraz, organismo horri egin behar zaio auditoria. Auditoria bakoitzean, aztertuko da ea kasuko fitxategiek legez ezartzekoak diren oinarritzko mailako, maila ertaineko eta maila altuko neurriak ezarrita dituzten.

Auditoriaren norainokoa O-NOZen jabetzakoak izan eta datu pertsonalak biltzen dituzten fitxategiak sartuko dira; horien artean, batzuk badaude zuzenean lotuta daudenak NOEBek garrantzen duen jarduerarekin: odol-emaielen erregistroa; e-Delphyn aplikazioa (NOEBen odolaren eta ehunen oinarritzko jarduerarekin lotuta dagoena); "major trauma erregistroa (gaixo politraumatizatuen kasuei buruzko informazioa); historia klinikoa, eta hemozaintza sistemaren erregistroa.

2011-2015 aldian, kanpoko enpresek hiru auditoria egin zituzten (2011n, 2014an eta 2016an); horrek 47.393 euroko gastua eragin zuen. Aipatu digutenaren arabera, 2013an ere auditoria egin beharra zegoen, baina ez zen egin aurrekontuan krediturik ez zegoelako.

2011ko auditoriaren iritzia aldekoa da, salbuespen batzuekin; 2014koan eta 2016koan, iritzi zehatzik eman gabe, O-NOZek datuen kudeaketa etengabe hobetu duela aipatzen da, eta horrek esan nahi du auditatutako araudiaren betetze-mailan hobera egiten ari dela.

6. eranskinean, auditoriaren emaitzaren laburpen bat jaso dugu, NOEBekin lotutako fitxategi bakoitzerako.

Organo-ematearekin eta -transplantearekin lotutako datuen fitxategiak historia klinikoa eta "major trauma erregistroan" (fitxategi horiek jasa aztertutakoak ditugu) daude, bai eta TENen jabetzakoak den aplikazio informatiko batean ere (CORE); azken horren auditoria, ordea, ez dagokio O-NOZi.

#### IV.6. AMAIERAKO ONDORIOA ETA GOMENDIOAK

**Azken batez**, Ganbera honek uste du NOEB bere prozedura operatiboak eta kudeaketakoak behin eta berriz berrikusten eta aztertzen dituen zentro bat dela, haien hobetzearen. Haren jarduera eta prozesuak etengabe auditatzen dituzte hainbat erakundek, eta emaitzak onak dira.

Organoak eta ehunak emateko eta transplantatzeko prozedura egokia eta arrazoizkoa da, eta aukera ematen du trazabilitatea eta gardentasuna segurtatzeko jarduerak irauten duen bitartean; prozesu hori etengabe berrikusten dute bere arduradunek, betearazte denbora laburtu ahal izateko, alderdi hori funtsezko jotzen baita hobera egiteko.

Lanaren ondorio nagusiak azalduta, hona hemen gure gomendioak:

- *NOEBen oroitidazki bat idaztea, eta hartan O-NOZen oroitidazkian ageri direnak baino xehetasun gehiagorekin jasotzea zentro horrek egiten duen jarduera osoa.*
- *NOEBeko LTEko lanpostu hutsen deialdia egitea komeni den aztertzea, kategoria profesional horren langile-behar iraunkorra dela eta.*
- *Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak ezarritako kontratazio-prozedurak jarraitzea produktu hemoderibatuak erosteko.*
- *Organoen detekzio- eta erauzte-prozesuan parte hartzen duten langileen ordainsari-sistema aztertzea, eta ordainsariak bateratzeko aukera aztertzea, gardentasun handiagoa lortze aldera.*
- *Organoen eta ehunen ematea eta transplanteak koordinatzeko unitateak egiten duen jardueraren oroitidazki bat egitea, herritarrei egiten duten lanaren berri emateko.*
- *69/2016 Foru Aginduan organoen ematerako eta transplanterako ezartzen diren informazio-sistema eta -erregistro guztiak garatzea.*
- *Organo eta ehunak detektatu, eman, mantendu eta erauzteko prozesuan parte hartzen duten langileei egintza bakoitzeko ematen zaizkien ordainsariak ordaintzeko prozedura hobetzea, batzuetan gertatzen diren atzerapenak saihesteko.*
- *Immunologiako laborategiko plantilla handitzea komeni den aztertzea, kanpoko enpresek egiten duten jarduera bere gain hartu ahal dezan.*
- *Organoen transplantea egin baino lehen "emaielen profila" deitutakoaren barruan egiten diren probak egiteko behar diren baliabideak aztertzea, eta hori alderatzea CUNekiko hitzarmenean ezarrita dagoen tarifarekin, baliabide publikoak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiltzeko.*
- *O-NOZen Datuak Babesteari buruzko Lege organikoa guztiz betetzera bideratutako neurriak ezartzen jarraitzea.*
- *Emandako zilbor-hesteetatik lortutako laginen bidalketak kontrolatzeko gunea NOEB izatearen helburua betetzea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.


Iruñean, 2017ko apirilaren 7an  
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

**1. ERANSKINA NOEBi ETA ORGANO-EMATEARI ETA -TRANSPLANTEARI APLIKATZEKO ZAIEN OINARRIZKO ARAUDIA, HURRENKERA KRONOLOGIKOAN**


- 30/1979 Legea, urriaren 27koa, Organoak Erauzteari eta Transplantatzeari buruzkoa.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
- 252/2002 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Nafarroako Hemozaintza Sistema ezartzen duena.
- 72/2003 Foru Agindua, ekainaren 4koa, Hemoterapiako Batzorde Teknikoaren osaera ezartzen duena.
- 1088/2005 Errege Dekretua, irailaren 16koa, odola ematearen eta transfusio-zentroen eta zerbitzuen gutxieneko betekizun teknikoak eta baldintzak ezartzen dituena.
- 2005eko irailaren 30eko 2005/62/EE Zuzentaraua, Batzordearena, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2002/98/EE Zuzentaraua aplikatzen diena odol-transfusioen zentroentzako kalitate-sistema baten arau eta zehaztapen komunitarioei.
- SCO/322/2007 Agindua, otsailaren 9koa, odolaren eta odol-osagaien erreakzio eta ondorio kaltegarri larrien trazabilitate- eta jakinarazpen-betekizunak ezartzen dituena.
- 5/2008 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa, Osasuneko kontseilariarena, "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Odol-emaileen Erregistroa" izena daraman fitxategi informatizatua sortzen duena.
- 2010/53/EB Zuzentaraua, uztailaren 7koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Transplanterako giza organoen kalitate eta segurtasun arauari buruzkoa (abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuaz sartu zen Espainiako antolamenduan).
- 1723/2012 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, Transplanterako giza organoak lortu, kliniki erabili eta lurraldeen artean koordinatzeko jarduerak arautzen dituena.
- 1/2013 Foru Legea, urtarrilaren 30ekoa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortu eta arautzen duena.
- 172/2013 Foru Agindua, Osasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Osasuneko kontseilariaren martxoaren 10eko 74/1999 Foru Agindua; azken horren bidez, konpentsazio ekonomikoen zenbatekoa gaurkotzen da, organo eta ehunen detekzioaren eta erauztearen arlorako.
- 25/2014 Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egitura organikoa garatzen duena.
- 9/2014 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzen dituena giza zelulak eta ehunak eman, lortu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko, eta horiek gizakiekin erabili ahal izateko koordinazio- eta funtzionamendu-arauak onesten dituena.
- SSI/2396/2014 Agindua, abenduaren 17koa, giza organoak lortu eta transplantatzeko kalitate- eta segurtasun-esparruaren programaren oinarriak ezartzen dituena eta beste herrialde batzuekiko trukeak egiteko informazio-prozedurak ezartzen dituena.
- 47/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 3koa, Osasuneko kontseilariak emana, Nafarroako Hemozaintza Sistemaren Erregistroa sortu eta arautzen duena eta dagokion datu pertsonalen fitxategia sortzen duena.
- 69/2016 FORU AGINDUA, irailaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplantatei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen dituena.




2. ERANSKINA NOEBek ODOLA LORTU, PROZESATU ETA BANATZEKO PROZEDURA




3. ERANSKINA EHUNAK DETEKTATU, ERAUZI, GORDE ETA INPLANTATZEKO PROZEDURA



4. ERANSKINA HEZUR-MUINAREN EMAILEA IZATEKO ETA BENETAKO EMATERAKO PROZEDURA



5. ERANSKINA ORGANOAK DETEKTATU, EMAN, ERAUZI ETA INPLANTATZEKO PROZEDURA



**6. ERANSKINA DATUAK BABESTEARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA NOEBekin LOTUTAKO FITXATEGIETAN BETETZEARI BURUZKO AUDITORIEN EMAITZAREN LABURPENA**

FITXATEGIAK	Oinarrizko mailako neurketak					Maila ertaineko neurketak					Maila altuko neurketak					Legezko neurketak						
	Segurtasun-agiria.	Langileen eginkizunak eta betebeharrak	Gora-beherak jasotzeko erregistroa	Erabiltzaileak identifikatu eta egiaztatzea	Sarbidetzen kontrola	Euskarri eta agiriaren kudeaketa	Segurtasun-arduraduna	Segurtasun-agiria.	Gora-beherak jasotzeko erregistroa	Auditoria	Sarbideten erregistroa	Euskarri eta agiriaren kudeaketa	Euskarri ez-automatizatutak	Babes- eta berreskurapen-kopiak	Telekomunikazioak	Datuen kalitatea	Informazio-eskubidea	Interesdunaren adostasuna	Sekretu-eginhobaria	Datuak hirugarrenek kudeatzea	ARCO eskubideak	Erregistroko jakinarazpena eta inskripzioa
2011 <sup>(1)</sup>																						
Odol-emaldeen erregistroa																						
Historia klinikoa																						
Major trauma erregistroa																						
2014																						
Odol-emaldeen erregistroa																						
e-Delphyn aplikazioa																						
Historia klinikoa																						
Major trauma erregistroa																						
2016 <sup>(2)</sup>																						
Odol-emaldeen erregistroa																						
e-Delphyn aplikazioa																						
Historia klinikoa																						
Major trauma erregistroa																						
Hemozainzako erregistroa																						

(1) 2011n, e-Delphyn aplikazioa ez zen existitzen

(2) 2016a hemozaintza erregistroa funtzionatzen hasi zen urtea da



Betetze partziala



Ez-betetzea



Ezin zaio analizatutako fitxategiari aplikatu



## BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

### **Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuari eta organo-emate eta -transplanteari buruz Kontuen Ganberak egindako behin-behineko txostena (2011-2015) dela-eta aurkeztutako alegazioak eta argitasunak**

Lehenbizi, Osasun Departamentuak adierazi nahi du bere gain hartzen dituela Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuari eta organo-emate eta -transplanteari buruz Kontuen Ganberak egindako behin-behineko txostenean (2011-2015) jasotako gomendio guztiak.

Txostenaren edukiari berari dagokionez, Departamentuak beharrezkotzat jotzen du honako alegazio edo argitasun hauek aurkeztea.

#### Odol bankua

2011-2014 aldian emateetan izandako beherapena nagusiki –baina ez soilik– lotuta dago odol eta hemoderibatuen eskari txikiarekin, zeina heldu baita aldi horretan jarduera kirurgikoak nabarmen behera egin izatetik; inguruabar horrek, izan ere, zuzeneko eragina izan zuen itxarote-zerrendetan. Zorionez, 2015etik jarduera berreskuratu eta prozesuari buelta eman zaio.

Farmazia Zuzendariordearen txostenean bertan aipatzen denez, jada lan egiten ari da farmakoen erosketa Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko prozedurei egokitzeko, eta zehazki, produktu hemoderibatuei dagokienez, prozedura hori jada VIII. Faktoreari aplikatu zaizkio, zeren hori baita eragin handiena duena.

6. eranskinean azaltzen den bezala, NOEBek nabarmen egin du aurrera Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa osorik betetzeko neurrien ezarpenean, erregistroei dagokienez, eta lehenetsi beharreko hobekuntza-arlo gisa gelditzen da bakarrik emaileen erregistroko erabiltzaileen identifikazioa eta egiaztatzea, eta datu baseetako gorabeheren erregistroa.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak honako hauek egiteko konpromisoa hartzen du: NOEBi buruzko oroitidazki xehakatuago bat egitea, bertan jasoz zentro horren jarduera guztia; NOEBen LTE lanpostu hutsetarako deialdia egitea; Immunologiako Laborategiko plantilla areagotzea komeni den aztertzea, bertan jasotzeko kanpoko enpresek egiten duten jarduera, eta emandako zilbor-hesteetatik lortutako laginen bidalketak kontrolatzeko gunea NOEB izatearen helburua betetzea.

Ez gaude, ordea, ados, txostenean adierazitako irizpide batekin, alegia, Nafarroako Emaileen Elkarteari (ADONA) diru-laguntza emateko aurrekontu-partida Nafarroako Ospitaleguneko Odol Bankuari dagokionean sartu behar izatearekin. Departamentuak uste du elkarten sarearekiko harremanak Departamentuari dagozkiola, eta zehazki Osasun arloko Herritartasunaren Zuzendaritzari, Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 132/2015 Foru Dekretuaren 10. artikuluari jarraituz.

#### Transplanteak

Departamentuak bere egiten ditu organoen eta ehunen ematearen eta transplanteen arloko gomendioak, eta prestatzen ari den Hobekuntza Planean sartuko ditu.

Irailaren 15eko 69/2016 Foru Agindua onetsi ondoren, Departamentua jada sakonki aztertzen ari da informazio-prozedura eta -sistema guztiak. Organoen eta ehunen ematerako eta transplanterako

koordinazio unitatearen oroitidazkiaren lehenengo zirriborroa jada egiten ari da, eta 9-17/PES-00068 idatzizko parlamentu-galderaren erantzunean, kontseilariak jada konpromisoa hartu du arlo honetan honako helburuen leheneste eta kronograma bat ezartzeko:

Helburua	Data
Nafarroako Emateen eta Transplanteen 2016ko oroitidazkia.	2017ko apirila
Nafarroaren eta beste autonomia erkidego batzuen bilakaerari eta haien arteko alderaketari buruzko txostena, "Transplanteen Erakunde Nazionalak ezarritako kalitaterako eta segurtasunerako esparru-programan" sartutako kalitate adierazleen gainekoa.	2017ko maiatza
Transplanterako Itxarote-zerrendan Sartzeko Protokoloen onespren formala.	2017ko iraila
Giltzurruneko Transplantearen Itxarote-zerrendaren Erregistroa arautzea eta Giltzurruneko Transplante gaixoei Organoak Esleitzeko Protokoloaren onespren formala.	2017ko azaroa
Organoen Ematea eta Transplantea Hobetzeko Plana egin da.	2017ko abendua
Giza organoen erabilera klinikoaren eta transplanteen jarraipenaren eta emaitzen adierazleen panel berria definitu eta abian jartzea.	2018ko otsaila
Kostuen ebaluazio-sistema garatu da.	2018ko martxoa

Irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emateari eta transplantei buruzko programaren koordinazio- eta kalitate-egiturak eratu dira, eta autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzailearen eta ospitale-koordinatzaileen eginkizunak arautu dira, figura horiek berariaz arautu gabe baitzeuden.

2015era arte, Foru Komunitateak autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzaile bat eta transplanteetarako bi ospitale-koordinatzaile zituen, baina Osasun Departamentuak jo zuen ez zela bidezkoa koordinatzaile hiru figura horiei eustea; hori dela eta, 2015eko urritik, Elizalde jaunak erantzukizun hirukoitza hartu du, autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzailearen eginkizuna bateratu baitu zainketa intentsiboetako jarduera asistentzialarekin eta zerbitzuaren jarraitutasun asistentziala eta txandak bermatzeko ospitale barnean beharrezkoak diren koordinazio-eginkizunetan parte hartzearekin. Berregituratze horren emaitza gisa, arazoizkotzat jo zen autonomia erkidegoko koordinatzailearen figura berriari esleitutako produktibitate osagarria berraztertzea; izan ere, haren erantzukizuna ospitale-koordinatzailearena baino askoz handiagoa da, zalantzarik gabe. Egituraren aldaketak 3.290,86 euroko aurrezki orokorra ekartzen du urtero.

Ez dugu zuzentzat jotzen Transplanteen Programari egoztea Kirurgiako guardia lokalizatuen kostu osoa, zeren eta horiek helburu orokorragoa baitute, eta ez baitira mugatzen organoen erauztera, ez eta soilik harekin justifikatzen ere; izan ere, guardia horietan larrialdiak eta ospitaleratutako gaixoak ere artatzen dira, Kontuen Ganberaren txostenak berak dioenez.

Transplanteari lotutako gastuen taulak, txostenaren 25. orrialdean ageri denak, aipatzen du ordainketek nolako bilakaera izan duten, baina ez du aipatzen urte bakoitzeko gastu errealak izan duen bilakaera; hori argitu ezean, okerrak egin daitezke. Ganberaren txostenean bertan aipatzen denez, "CUNekin organo-transplanterako hitzarmena" kontzeptuaren pean 2012an egindako aurrekontu-gastuak 2011ko azken hiruhilekoari dagokiona biltzen du: 1,6 milioi euro dira guztira. Hori dela eta, 2012ko gastu errealak 4,97 milioikoa izanen litzateke, eta 2011koa, berriz, 6,1 milioikoa. Doikuntza hori eginda, egiaztatu da 2015/2011 urteetan gastu errealak izan duen igoera % 36koa dela, eta ez %

84koa, txosteneko taulatik oker ondoriozta litekeen bezala. Txostenak ongi dioen bezala, CUNi ordaindutako tarifak ez dira aldatu.

Gastu errealaren bilakaera (2011-2015)

	2011	2012	2013	2014	2015	
CUNekin organo-transplanterako dagoen hitzarmena	6.100.000	4.970.000	5.363.948	6.036.844	8.294.595	% 36,0

Ez dugu zuzentzat jotzen txosteneko 9. eta 29. orrialdeetan ageri den aipamena, erizainek, klinikako laguntzaileek eta zeladoreek jasotzen duten produktibitate bereziko osagarriari buruzkoa. Gure ustez, hau dioen tokian: “Osagarri hori eta guardia horiek 2011. urterako itxarote-zerrendak murrizteko jarduera bereziko programa batean onetsi ziren”; honakoa esan beharko luke: “Osagarri hori, “Prozesuko ordainketa” modalitatean aparteko jarduera egitea baimentzen zuen 162/2011 Ebazpenean onetsi zen.

Ebazpen horren helburu nagusia –ezen ez bakarra– zen itxarote-zerrendak gutxitzea. Hartan, “prozesu bakoitzari kreditu-kopuru” bat esleitzen zaio, eta “kreditu bidezko ordainketarako” modulu batzuk finkatzen dira estamentu profesional bakoitzerako. Ordutik, modulu horiek izan dira erazte-prozesuetan asimilazioz aplikatu izan direnak. Bistan da ez dela itxarote-zerrenden programen gaia.

Nolanahi ere, geure egiten dugu organoak detektatu eta erazteko prozesuan parte hartzen duten langileentzako dagoen ordainketa-sistema aztertzeo gomendioa, ahal dela ordainsariak bateratzeko eta, gainera, batzuetan gertatzen diren atzerapenak saihesteko. Horri dagokionez, aztertzen ari da aukerarik ba ote dagoen xede horretara bideratutako aurrekontu-partida bateratu eta Nafarroako Ospitalegunearen kontzeptuan sartzeko. Departamentuaren IV. kapituluko diru-laguntzetarako egungo formulak izapidetze zaila eragiten du, eta horrek ekar dezake ordainketen atzerapenak metatzea, eta bikoiztasunak ere sor ditzake.

Halaber, honako hau dioen gomendioa onartzen dugu: Organoen transplantea egin baino lehen “emailen profila” deitutakoaren barruan egiten diren probak egiteko behar diren baliabideak azterzea, eta hori alderatzea CUNekiko hitzarmenean ezarrita dagoen tarifarekin, baliabide publikoak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiltzeko.

Bestalde, bidezkoa da argitzea zergatik Osasun Departamentuak ez duen aurreikusi urratsak egitea urtarrilaren 30eko 1/2013 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzeko; izan ere, arrazoia da aipatutako foru legea onetsi eta bi hilabetera, zehazki 2013ko martxoan, Osasuneko Lurraldearteko Kontseiluak “Transplanteen plangintzarako irizpideak” onetsi zituela, biztanleriako eta kalitateko estandarretan oinarrituak. Estandar horien arabera, gaur den egunean, Nafarroak ez ditu betetzen transplanteetarako zentro bat edukitzeko behar diren irizpideak, daukan biztanle kopurua dela eta.

Iruñean, 2017ko apirilaren 6an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos



Honen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako lanarengatik eta emandako arretarengatik eta tratuarengatik; dena den, zilegi bekigu balizko alegazioen bat, argitasun edo zehaztapen batzuk eta zuzenketa bat edo beste aipatzea.

II. atalean. II.1 Alderdi orokorrak Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (NOEB). Atxikitzea, eginkizunak eta araudia

### **Eginkizunak**

Ustezko “egungo oinarrizko helburu” bat aipatzen da, gure ustez osatu gabe dagoena. 1/2013 Foru Legearen 2. artikulua “helburu” bikoitza aipatzen du hitzez hitz: 1.- “Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren helburua izan da giza odoletik eta giza zelula eta ehunetatik eratorritako produktuetarako osasun premiei erantzutea, bai osasun sare publikoaren bai osasun pribatuaren eta itunduaren esparruan. Produktu horiek lortu, biltegiatu, kudeatu eta hornitzea bermatuko da uneko eskuragarritasunaren arabera”; eta 2.- “Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak Nafarroako Transfusioen eta Ehunen eta Zelulen Sarea koordinatuko du”.

### **Nafarroako Odol, Zelula eta Ehun Emaileen Erregistroa**

Osasuneko kontseilariaren urtarrilaren 17ko 5/2008 Foru Aginduak “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Odol-emaileen Erregistroa” izena daraman fitxategi informatizatua sortu zuen. Martxoaren 26ko 4372013 Foru Aginduak, berriz, Nafarroako Odol-emaileen Erregistroa izeneko fitxategi informatizatua ezabatu eta Nafarroako Odol, Zelula eta Ehun Emaileen Erregistroa izeneko fitxategi informatizatua sortu zuen.

### **REDMO Erregistroa dela eta**

Zenbait erregistroren kudeaketa –horien artean REDMO figura dago– transplanteen koordinaziorako unitate autonomiko baten bitartez eginen da. Unitate hori Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzuaren menpe egonen da eta autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzailearen ardura teknikoaren pean jardunen du, horixe ezarri baitzuen irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduak, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplantei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen dituenak.

### **Zilbor-hesteko odola ematea dela eta**

Zirriborroan haxe jasotzen da: “NOEBek 2016rako honako helburu hau jarri zion bere buruari: Nafarroan emandako zilbor-hesteen bidalketak kontrolatzeko gune bilakatzea”.

Kalitate Sistema Orokorra Berrikusteko Akta izeneko 2016ko dokumentuan, berriz, 2015. urtea berrikusi eta 2016rako helburuen plangintza egin zen, eta proposamenaren 2. puntuan honako hau baizik ez da jasotzen: 1.- ISBT-128 kodetzea 2016rako; 2.- Flebotomia terapeutikoak egitea hemokromatosia diagnostikatu zaien pertsoneri; eta 3.- Ehunak D ingurunean prozesatzea.

Bestalde, ezin izan dugu jakin

zilbor-hesteko odola emateko prozedurarako O-NOZek Kataluniako Odol eta Ehun Bankuarekin duten hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen aktarik badagoen, eta inongo agiritan ere ez dago jasota prozedura hori nola antolatuta dagoen, ez eta emate horiek nola erregistratzen diren ere, martxoaren 43/2013 Foru Aginduak, Nafarroako Odol-emaileen Erregistroa izeneko fitxategi informatizatua ezabatu eta Nafarroako Odol, Zelula eta Ehun Emaileen Erregistroa izeneko fitxategi informatizatua sortzen duenak, ezartzen duena gora-behera. Gaur egun, ez dakigu zein egoeratan dagoen Nafarroan egindako zilbor-hesteko emateen erregistroa.

### **Biozaintza**

Ez dugu erreferentziarik aurkitu Biozaintzako Erregistroari buruz; izan ere, Foru Komunitateko emateari eta transplantei buruzko informazio-sistemak bildu behar ditu erregistro horrek.

1/2013 Foru Legearen 10. artikuluan aipatzen da Ehunen Batzorde Teknikoak “Nafarroako Biozaintzaren urteko txostena onetsi behar duela”. 69/2016 Foru Aginduaren 5. artikulua arabera, Transplanteen Batzorde Teknikoan, besteak beste, “Nafarroako Odol eta Ehun Bankuan biozaintzaren informazio sistemaren ardura duen teknikaria” egonen da (halako figurarik, ordea, ez dago NOEBen egituran).

**Aurrekontu-betearaztea**

Diru-sarrerek aurreko ekitaldiarekin alderatuta behera egin izanaren arrazoia izan daiteke emandako zerbitzuen tarifak pixkanaka jaitsi izana. Ez dago jasota NOEBek zentro pribatuei eskatutako teknika serologikoen eta biologia molekularrekoen fakturarik. Gainkarga ferrikoa duten gaixoei aplikatzen zaien osasun arreta eta terapia ere ez dira fakturatzen ari. Ez dira kontatzen ari produktu zelularrak Navarra-Biomedik lagatzeko zerbitzuak, zeren eta hitzarmenak baterako kontu korrante bat baitu.

**Langileak**

Txostenak aipatzen dituen LTEen 6 lanpostuetatik, bi arratsaldekoak dira, bi gauekoak eta bi lanaldi partzialekoak (asteburuan bakarrik). Txostenean ez dira plantillaren barruan jasotzen erauzteetarako Tuterako gune finkoko osasun langileak (sendagile bat eta 2 EUD). Ez da aipatzen, ezta ere, 17 EUDetatik lau egiturazkoak direla lanaldiaren % 48rekin.

Ehunen atxikipenari dagokionez, berez halakorik ez dago. NOEB hainbat lan-arlotan (zatikatzea, bana-keta, laborategia, ehunak eta erauzteak) banatuta dago, eta langileek arloz arloko errotazioak egiten dituzte lan-zamen arabera.

NOEBek ez du ez eskumenik, ez gaitasunik bete gabe dauden lanpostuetarako deialdia egiteko. Langileak Nafarroako Ospitaleguneari atxikita daude.

**IV. Ondorioak eta gomendioak**

Giza baliabideak eta baliabide tekniko, administratibo eta kudeaketakoak dauden bitartean, ados gaude egindako lehen hiru gomendioekin.

Ez gaude ados, ordea, azken gomendioarekin, egun idatzita dagoen moduan.

**Eranskina:****Iruzkinak****1. Sarrera**

NOEBek kanpoko eta barneko auditoriak direla-eta izan duen esperientzian oinarrituta, uste dugu komenigarria izan litekeela auditoriaren fase bakoitzean egin diren pertsonen izen-deiturak jasota uztea, edo zehaztea NOEBeko zein langilek hartu duten parte, batez ere, NOEBen izan diren aldaketak kontuan hartuta, datuak hobeki alderatu ahal izateko.

Halaber, horrek aukera emanen zuen txostenean aurkeztutako datuen jatorria ezagutzeko; izan ere, zenbait balizko akats kontzeptual eta zehaztugabetasun aurkitu ditugu, auditoreei ezin egotz dakizkienak, zeren eta halako maiztasun batez guztiz zuzenak ez diren terminoak nahasten edo erabiltzen baitira. Adibidez, puntu batzuetan “zelulen” aipamena falta da; “hezur-muina” terminoa erabiltzen da “guraso hematopoietikoak” edo “transplante hematopoietikoak” aipatu nahi direnean; edo “hezur-muinaren” emaileak aipatzen direnean, “erregistratutako izangaiak” dira egiazki; bereiz aipatzen dira “Nafarroako hezur-muinaren emaileak” eta “Nafarroako hezur-muinaren transplanteak”, gerta daitekeen arren guztiak nafarrak izatea zein ez izatea, eta ia guztiak muinaren (hezur-muinaren) transplanteak izan ez diren arren. Edo, adibidez, alde aurretiko gordailua egindako autoemateen kasuan.

Laugarren paragrafoan, Ganbera horren aurreko gomendioen jarraipenari buruzko txostenei buruz ari dela, esaten da horietako batzuk “garatzeko fase oso aurreratuan” daudela. Ez dugu aurkitu haien egungo egoerari buruzko aipamenik.

Aipatzen da “Zentro honek bere eginkizunekin lotutako hainbat batzorde eta komitetan hartzen du parte”, baina horietako batzuetan egiazki zuzendari kargua duenak baizik ez du parte hartzen, eta batzuetan soilik Nafarroako Hemozaintzako koordinatzaileak; beste batzuetan, berriz, egiazki aipatutako egitura horien arduradunek hartzen dute parte. Zilbor-hestearen aipamenik, ordea, ez dugu aurkitu.

**II. II.1 Alderdi orokorrak Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (NOEB). Atxikitzea, eginkizunak eta araudia**

Jakin nahi genuke ea honako hauek aztertu diren ala ez:

- NOEBek bi lege hauen arteko aldiaren izan duen funtzionamendua: 20/2010 Foru Legea, NOEB sortu

zuena, eta 1/2013 Foru Legea, aurreko legea indarrik gabe utzi zuena.

- Abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legeak NOEBerako ezarri zuen egitura 25/2014 Foru Dekretura arte aldatu ez zen arren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Estatutuak onesten dituen uztaillaren 18ko 62/2012 Foru Dekretuak Odol eta Ehun Bankuko zuzendariaren eginkizunak ezarri zituen, betiere Nafarroako Ospitaleguneko asistentziaren arloko zuzendari medikoaren menpe. Menpetasunaldaketa bat legoke, beraz, 20/2010 Foru Legea urratuta.

- Menpetasunean aldaketa egin da, beraz, (ospitale-ingurune batera iragan baita), foru erkidegoan jarduera oso anitza izan arren: asistentzia-estaldura publiko eta pribatuaren arduraduna; transfusioen, zelulen eta ehunen sare publiko eta pribatuaren koordinatzailea; Hemozaintza sistema publiko eta pribatuaren koordinatzailea; odol, zelula eta ehunen emateen eta hartzaileen erregistro erregional publiko zein pribatuaren arduraduna eta abar.

- NOEBen egituran murrizketa garrantzitsua egin da, Kudeaketa zuzendariordearen eta Laguntza ataleko buruaren figurak desagertu edo amortizatu baitira, 172013 Foru Legean ezarritako helburu eta eginkizunak gehiago diren arren, bai Transfusio-zentro Komunitario gisa, bai Giza Zelula eta Ehunen banku gisa, eta zerbitzuen zorroa pixkanaka zabaltzeko joera dagoen arren.

- 4. artikuluan jasotako NOEBen helburuen betetzea; honako hauek, besteak beste: c) *Nafarroako Foru Administrazioaren aurrean jardutea premien asetze orokorra lortzeko eta odola, zelulak eta ehunak bana dakizkien haien beharrea dauden osasun zentro guztiei*; d) *Nafarroaren beregaintasuna lortzea odolari eta hemoderibatuei dagokienez*; edo f) *Odol homologoarekiko eta hemoderibatuekiko esposizioaren murrizketa sustatzea, erabilera-gomendioak eta jarraibideak eguneratuz eta jakinaraziz eta transfusioaren beste alternatiba batzuk indartzuz, autotransfusio-modalitate guztiak barne*; edo 5. artikuluan jasotako eginkizunak.

#### **Jarduera eta prozedurak**

Aurkeztutako datuak jarduerari buruzkoak dira, eta ez dira prozesuen kalitatea adierazten, NOEBen Kalitatearen Kudeaketarako Sistemari jasotzen diren arren. Ez da aipatzen, ezta ere, Osasun Ministerioari bidalitako 2014ko eta 2015eko datuetan aurkitutako akatsak.

15. orrialdeko taulan aurkeztutako datuetan, gure ustez, akats bat dago "autotransfusiorako lortutako unitateei" buruzko lerroan (askoz altuagoa da emate autologoak berak baino), bai eta, segur aski, lortutakotzat eta banatutakotzat aurkezten diren plasma unitateetan ere (litekeena da transfusioak egiteko erabilitakoak eta industriara bidalitakoak nahastuta egotea).

Ez daude jasota guraso hematopoietikoen transplante guztiak. Soilik Nafarroako Ospitaleguneko alogonikoak daude: autologoak eta CUNekoak falta dira. Gainera, batuketa gaizki eginda dago, zeren eta "boost" direnak (birtransplanteak) eta emaleen linfzitoen infusioak kontabilizatu baitira.

Plasma zatikatzeko lanen kudeaketa

Atal sentibera honetan ere, litekeena da termino eta kontzeptu batzuk nahastu izana –nahastea ezin zaie auditoreei egotzi baizik eta, segur aski, kontsultaei–. Erabilitako hemoderibatu guztiak ezin dira manufakturatuta gaur egun gure herrialdean; horien panoplia bat baizik ezin da manufakturatuta. Espainian manufakturatzen direnak ordainpekoa ez den emale altruistarengandik jasotakoak dira –halakoak izaten dira Europako emale gehienak, merkataritza-laborategi edo etxe askoren iturria–.

Aztertutako aldi hartutako neurri teknikoak ez dira aztertu, ordea; izan ere, litekeena da neurri horiek aipatutako autohornidura hori erraztea. Ez da aztertu, ezta ere, 1/2013 Foru Legeak ezarritako helburuak eta eginkizunak, autohornidura horretan eragin zezaketenak, bete diren ala ez. Adibidez, plasmaferesiko programak garatu beharrea, aferesiak edo plasmaferesiak egiteari uzteko erabaki teknikoa hartu zen. Ez da aipatzen ea batzorde autonomikoetan edo ospitalekoetan kontsumoak ebaluatu ote ziren eta neurri zuzentzaileak proposatu ote ziren; edo "jarduketarik proposatu ote zen, dauden beharri-zanetan asetze-maila hobetzeko eta hemoderibatuak helarazteko horien beharrea dauden osasun-zentro guztiei". Ez azterketarik, ez aipamenik ez dago uneren batean defizitarioak izan diren produktu batzuk zatikatzeko balizko erabaki teknikoari buruz, edo zenbatetsitako tarifek autohornidura horretan edo haien defizitean edo iraungitzean daukaten eraginari buruz.

Halaber, segur aski ezagutza teknikoak falta izateagatik, ez dira aztertu kontsumitzen diren hemoderibatu batzuek ematen dituzten aukerak, eta ez da aztertu, ezta ere, zein arrazoi tarteko handitu den

plasmaren kontsumo klinikoa, horrek eragin baitu manufakturatzekeo plasma gutxiago edukitzea.

Ez da aipamenik egin aztertu den aldiaren azken urteetan odol-osagaiak (plaketak) inportatzeko gertatu den beharrari buruz, kontsumoa handitzearen ondorioz, emateak jaistearen ondorioz eta aferesiak ete-tearen ondorioz, ez eta aldaketa teknikoek haien efizientzian eduki ahal izan duten eraginari buruz ere.

### **III. Helburuak, norainokoa eta mugak**

NOEBen helburuak eta eginkizunak, 1/2013 Foru Legearen arabera, ugari badira ere, behin-behineko txostenean alderdi jakin batzuk, oso mugatuak, baizik ez dira zehaztu.

Txostena egin dutenak auditoreak diren arren, behin-behineko txostenean aitortzen dute ez dakitela "NOEBen beste gasturik izan ote den". Jakingarri gisa, aipatu nahi diegu gastu horien artean sartu behar harko lirakeela honako aurrekontu-programa hauetan hornidura, material eta zerbitzu guztiak direla-eta erregistratutako gastuak:

Biltegi Orokorra (paper-gauzak, material sanitarioa eta abar); Farmazia Zerbitzuak (gasak, sueroterapia, antiseptikoak eta abar); hondakinen jasotzea (likido bereziak izan ezik); ura, elektrizitatea, lorezaintza eta abar; laneko osasuna eta arriskuak; Elektromedikuntzako Zerbitzua (mantentze-lan prebentiboak eta konponketak); Informatika Zerbitzua, eta abarrekoak.

#### **1. eranskina NOEBi eta organo-emateari eta -transplanteari aplikatzeko zaien oinarritzko arau-dia, hurrenkera kronologikoan**

Proposatzen dut Espainiako antolamenduan jada sartuta dauden zuzentarauak kentzea, zeren eta txostenean batzuk agertzen baitira baina beste batzuk ez.

30/1979 Legea, urriaren 27koa, Organoak Erauzteari eta Transplantatzeari buruzkoa.

15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.

252/2002 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Nafarroako Hemozaintza Sistema ezartzen duena.

72/2003 Foru Agindua, ekainaren 4koa, Hemoterapiako Batzorde Teknikoaren osaera ezartzen duena.

1088/2005 Errege Dekretua, irailaren 16koa, odola ematearen eta transfusio-zentroen eta -zerbitzuen gutxienerako betekizun teknikoak eta baldintzak ezartzen dituena.

2005eko irailaren 30eko 2005/62/EE Zuzentaraua, Batzordearena, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2002/98/EE Zuzentaraua aplikatzen diena odol-transfusioen zentroentzako kalitate-sistema baten arau eta zehaztapen komunitarioei. (Espainiako antolamenduan honako honen bidez sartua: 1343/2007 Errege Dekretua, urriaren 11koa, transfusio-zentroen eta -zerbitzuen kalitate-sistemari buruzko arauak eta zehaztapenak ezartzen dituena).

SCO/322/2007 Agindua, otsailaren 9koa, odolaren eta odol-osagaien erreakzio eta ondorio kaltegarri larrien trazabilitate- eta jakinarazpen-betekizunak ezartzen dituena.

5/2008 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa, Osasuneko kontseilariarena, "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Odol-emaileen Erregistroa" izena daraman fitxategi informatizatua sortzen duena. Honako honetan KENDUA: 43/2013 Foru Agindua, martxoaren 26koa, Nafarroako Odol-emaileen Erregistroa izeneko fitxategi informatizatua ezabatu eta Nafarroako Odol, Zelula eta Ehun Emaileen Erregistroa izeneko fitxategi informatizatua sortzen duena.

2010/53/EB Zuzentaraua, uztailaren 7koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Transplante-rako giza organoen kalitate eta segurtasun arauari buruzkoa (abenduaren 28ko 1723/2012 Errege Dekretuaz sartu zen Espainiako antolamenduan).

1723/2012 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, Transplanterako giza organoak lortu, klinikoki erabili eta lurraldeen artean koordinatzeko jarduerak arautzen dituena.

1/2013 Foru Legea, urtarrilaren 30koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortzen eta arautzen duena.

172/2013 Foru Agindua, Osasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Osasuneko kontseilariaren martxoaren 10eko 74/1999 Foru Agindua; azken horren bidez, konpentsazio ekonomikoen zenbakekoa gaurkotzen da, organo eta ehunen detekzioaren eta erauztearen arlorako.

25/2014 Foru Dekretua, otsailaren 19koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egitura organikoa garatzen duena.

9/2014 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzen dituena giza zelulak eta ehunak eman, lortu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko, eta horiek gizakiekin erabili ahal izateko koordinazio- eta funtzionamendu-arauak onesten dituena.

SSI/2396/2014 Agindua, abenduaren 17koa, giza organoak lortu eta transplantatzeko kalitate- eta segurtasun-esparruaren programaren oinarriak ezartzen dituena eta beste herrialde batzuekiko trukeak egiteko informazio-prozedurak ezartzen dituena.

47/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 3koa, Osasuneko kontseilariak emana, Nafarroako Hemozaintza Sistemaren Erregistroa sortu eta arautzen duena eta dagokion datu pertsonalen fitxategia sortzen duena.

69/2016 FORU AGINDUA, irailaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kaliterako egiturak erregulatzen dituena.

## **2. eranskina NOEBi aplikatzekoa zaion oinarritzko araudiaren arabeko definizioak**

1/2013 Foru Legearen hitzaurrean, honakoa jaso zen: "Abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legearen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortu zen, eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezarri". Arauaren izena hori bazen ere, berez, ez da entitate publiko bat sortu; izan ere, 2. artikulua, haren izaera eta araubide juridikoa azaltzen dituelarik, adierazten du Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpeko gainerako zentro publikoen izaera eta araubide juridiko bera izanen duela. "Zentro publikoak" deiturikoak, egiazki, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko unitate organikoak dira, nortasun juridikorik gabeak.

Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduen baimenei buruzko oinarri orokorrak ezartzen dituen urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuak –2002/98/EE Zuzentarauarekin bat–, C.2.5.B puntuan, transfusiorako zentroak osasun zentro gisa definitzen dira: giza odola edo haren osagaiak ateratzearekin eta egiaztatzearekin lotutako jardueretatik edozein egiten diren osasun zentroak dira, haiek nora bideratzen diren edo nola tratatzen, biltegitzen eta banatzen diren alde batera utzita, betiere transfusiorako diren bitartean; C.2.5.9 puntuan, berriz, ehun bankuak definitzen dira: ehunak lortu eta automontuetan edo alomontuetan erabiltzen diren arte haiek kontserbatu eta haien kalitatea bermatzeko ardura duten osasun zentroak dira. U.81 puntuan ematerako odol-ateratzeak egiten dituzten osasun-zerbitzu eta -establezimenduak definitzen dira: transfusio-zentro bati lotutako laguntza-arloko unitate bat da, zeinean, sendagile baten erantzukizunaren pean, behar bezalako trebakuntza duten erizaintzako langileek odol-ateratzeak egiten baitituzte, ibilgailu batean edo horretarako egokituta dauden areto publiko zein pribatuetan. Eta U.82 puntuan transfusio zerbitzua definitzen da: ospitale-zentro bateko laguntza-unitate bat da, transfusio-zentro bati lotua, zeinean, Hematologian eta Hemoterapian espezializatuta dagoen sendagile batek odola eta odol-osagaiak biltegitzen eta banatzen baititu; unitate berean, gainera, odolaren eta odol-osagaien bateragarritasunari buruzko probak egin daitezke, bertako instalazioetan erabiltzeko, baita ospitale-transfusioeko jardueretan ere.

## **3. eranskina:**

### **4. artikulua. Helburuak.**

Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak honako helburu orokor hauek ditu:

f) Odol homologoarekiko eta hemoderibatuekiko esposizioaren murrizketa sustatzea, erabilera-gomendioak eta jarraibideak eguneratuz eta jakinaraziz eta transfusioaren beste alternatiba batzuk indartuz, autotransfusioaren modalitate guztiak barne.

g) Emailearengandik hartzailearenganako trazabilitatea eta alderantzizkoa ere bermatzea, Nafarroan banaturiko odol, odol-osagai, zelula eta ehunetarako.

h) Hemozaintza sarea koordinatzea Foru Komunitatearen barrenean, eta sarearen koordinatzaile gisa jardutea estatuan, otsailaren 9ko SCO/322/2007 Agindurekin eta azaroaren 10eko 1301/2006 Errege Dekretuarekin bat; Nafarroako Gobernuarentzat, hala ere, hori ez da eragozpena izaneren hitzarmenak gauzatzeko erakunde edo entitate publiko nahiz pribatuekin, zerikusia baldin badute Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren jarduerekin, ematearen arloan bereziki.

k) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak ematen dituen zerbitzuen jarraipenerako ekintzak sustatzea, Europan eta nazioartean erregistratutako kalitateko ziurtatze-sistemak aplikatuz.

#### **5. artikulua. Eginkizunak.**

Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak, dituen helburuak garatu eta betetzeko, ondoko ataletan zehazten diren berariazko eginkizunak dauzka esleituta:

Transfusio-zentro komunitario gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Zentro eta zerbitzuen jarduerak Nafarroako Transfusioen eta Giza Zelula eta Ehunen Sarean koordinatzea.

b) Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan odolaren eta odol-osagaien ematea planifikatu eta sustatzea.

c) Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-esparruan odolaren eta odol-osagaien erauzketa egitea, geroago terapiarako hemoderibatu gisa erabil daitezzen.

d) Terapiakoak ez diren plasmaferesi- eta zitaferesi-programak garatzea, emate altruistan oinarrituak, autohornikuntza erdieste aldera.

h) Nafarroako Foru Komunitateko transfusio-zentro eta -zerbitzu publiko eta pribatu guztien beharizanen asetzeta planifikatzea eta odolaren nahiz odol-osagaien banaketa kudeatzea; orobat, beharrenda dauden eta eskaera egiten duten beste erkidego batzuek dituzten odol eta odol-osagaien premiei erantzutea.

n) Autotransfusioko, odol-aurrezpeneko eta gutxieneko transfusio-eskemetako programak sustatzea erkidegoko ospitale guztietan.

ñ) Bere eskumen teknikoei buruzko txostenak ematea agintari eskudunek hala eskatuta, Foru Komunitateko transfusio-zentro eta -zerbitzuak irekitzeari eta/edo haien jarduerak aldatzeari ere dagokionez.

Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuko zuzendaria

PARLAMENTUAK ESKATUTA, KONTUEN GANBERAK NAFARROAKO ODOL ETA EHUNEN BANKUARI ETA ORGANO-EMATE ETA -TRANSPLANTEARI BURUZ (2011-2015) EGINDAKO TXOSTENA DELA-ETA EGINDAKO TXOSTEN PERTSONALA

AIPATUTAKO DOKUMENTUA –29 ORRI ETA BESTE 10 ORRI EGITEN DUTEN 6 ERANSKIN DAUZKA– AZKAR ETA PRESAZ IRAKURRI ONDOREN, BESTE EGITEKO ESKLUSIBOKI ETA SAKONKI ASISTENTZIAL BATEAN ARI BAININTZEN –HILAREN 3AN, ASTELEHENEZ, 122. KONTSULTAN ETA HILAREN 4AN, NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO EBAKUNTZA-GELA NAGUSIAN, NON 5 PROZEDURA ENDOSKOPIKO EGIN BEHAR BAINEUZKAN– ADIERAZI BEHARRA DAUKAT, EZER BAINO LEHEN, ESKERRIK BEROENAK EMAN NAHI DITUDALA NIRE BALORAZIO PERTSONALA EMATEKO DUDAN AUKERARENGATIK –AZELELATUA BAINA EZ HORREGATIK GUTXIAGO BENETAKOA ETA ESPERIMENTATUA–. ESKER-EMATE HORI ZUZENDU NAHI DIET KAREN MORENO ORDUÑA AUDITOREARI ETA ASUNCIÓN OLAETXEA ESTAMPA LEHENDAKARIARI.

2012KO MARTXOTIK 2015EKO URRIRA BITARTEAN IZAN NUEN ESPERIENTZIA OSO TRINKOA IZAN ZEN, AUKERA IZAN BAINUEN TRANSPLANTEEN MUNDUAK ESKAINTZEN DUEN ILUSIOZKO AGERTOKIAN MURGILTZEKO, ESKATZEN DITUEN EZAGUTZA GUZTIAK ETA ARLO HORREK GIZARTEAN DUEN PROIEKZIO SOZIALA KONTUAN HARTUTA. BAINA DENBORA HORRETAN EZ NUEN ARDURALDI OSOA EDO ESKLUSIBOA EDUKI ZEREGIN HORRETAN; IZAN ERE, ALDI BEREAN ANTZINAKO NAFARROAKO OSPITALEKO UROLOGIA ZERBITZUKO SENDAGILE ONDOKOA NINTZEN, OSPITALE HORI 2014KO ABUZTUAN AZKENDU ZEN ARTE, NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO BATERATZE PROZESUAREN ONDORIOZ. HORRI BURUZ EZER ERE EZ DA AIPATZEN AUDITORIAN. HORRENBESTEZ, ZERBITZU HORREN AURREKO BURUA ERRETIRATU ONDOREN, EBAKUNTZA-GELAKO PROGRAMAZIOAREN KANPOKO KONTSULTEN ETA MIR PROGRAMAKO TUTORETZAREN ARDURADUN ERE BIHURTU NINTZEN. GUARDIEN PROGRAMA ETA OSPITALEKO EGUNEROKO LANAK BETETZEN JARRAITZEAZ GAIN. HORRI GUZTIARI BURUZ EZER ERE EZ DA AZALTZEN AUDITORIAN.

KONTUA OSO ERRAZA DA: NOIZ, NON ETA NOLA EGITEN DEN KOORDINAZIO AUTONOMIKOA. SEKULA EZ NUEN HUTS EGIN ERAKUNDEAREN INONGO BILKURATAN, ETA PARTAIDETZA AKTIBOA IZAN NUEN OSASUN DEPARTAMENTUAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN BILKURA GUZTIETAN, AHOZKO ZEIN IDATZIZKO TXOSTENAK ERE EGINEZ. FULLTIME ARDURA, BERAZ, LANERAKO TXOKO ETA SEGUNDOAK BILATUZ, DENBORAREN TRAPUKETARI BATEN GISARA, DENBORA HORI AURKITZEKO OINETAKOAK SARTZEKO DARABILENAREN MODUAN. ESATE BATERAKO, 08:00ETATIK 08:30ERA. EDO GOIZ ERDIAN, CCIN KAFA HARTZEN NUEN BITARTEAN; ETA EGUERDIAN, ODOL ETA EHN BANKURA ETA NAFARROAKO OSPITALEKO ZIURA ERLOJUAREN KONTRA EGINDAKO IHE-SALDI LABURRETAN, ETA ABAR ETA ABAR BIDE BATEZ ESAN, BI MAILA HORIETAN LAGUNTZA ETA ULERKORTASUN BETEAK AURKITU DITUT.

- BIDEKO AMA BIRJINA OSPITALEKO EHUNEN ARLOKO ANTZINAKO KOORDINATZAILEAK 2012KO IRAILEAN HARTU ZUEN ERRETIROA, ETA HAREN ORDEZ ROLDAN DOKTOREA SARTU ZEN, BAINA 2013KO MARTXORA ARTE EZIN IZAN ZUZEN BERE LANSARIA KOB RATU, KOORDINATZAILE AUTONOMIKOA IKUSEZINA BAITZEN.

- ZEREGATIK? 2012. URTEAN ORGANO-ERAUZTEEN 12 KASU IZAN ZIREN, HORREK ONDOREN DAKARRENAREKIN. AUDITORIA EZ DA HORRETAN SARTZEN, ETA INONGO HIPOTESIRIK EZ DU AIPATZEN.

- ZER BALORAZIO IKUS DAITEZKE OSPITALE BARRUKO ASISTOLIA ERAKO EMATEEN PROGRAMARI BURUZ EDO III. MOTAKO MAASTRICH DELAKOARI BURUZ ETA LIZARRAKO ETA TUTERAKO ASISTENTZIA ETA BALIZKO EMAILEAK HERRI HORIETAKO OSPITALEETAN, GARCÍA ORCOYEN ETA REINA SOFÍA OSPITALEETAN, INTEGRATZEKO HELBURUARI BURUZ?

- OSASUN MINISTERIORA-TENERA JOATEKO MADRILERA EGITEN NITUEN BIDAIA GUZTIAK ALVIA TRENEAN EGIN NITUEN, BIGARREN MAILAKO EDO TURISTA ERAKO BIDAIA-TXARTELAREKIN. GOIZEKO 06:35EAN, ETA EGUN BEREAN 19.35EKO TRENA HARTU ETA 22:40AN IRUÑERA IRITSI, BIHARAMUNEAN UROLOGIA LANETAN JARDUN AHAL IZATEKO. HORRETARAKO, LEHENBIZI IDATZIZ BAIMENA ESKATU BEHAR IZATEN NION ZERBITZUBURUARI, OSPITALEKO ZUZENDARI MEDIKOARI ETA OSASUN ZUZENDARITZA NAGUSIARI, ALDIRO... DEBEKU NUEN HEGAZKINEZ EDO PREFERENTEAN BIDAIATZEA...

- ARLO ASISTENTZIALEKO ERAGILEEN ARAU-ESPARRU ZABALAK EZARRITAKO LANSARIAK URTEBETEKO ATZERAPENAREKIN ORDAINITZEN ZIREN –ORAINGO ZAZPIGARREN GOMENDIOA HORRI BURUZKOA DA–.

- TXUNDIDURA ETA HARRIDURA, ZEREN ETA TXOSTENAK ZENBAKIAK BAIZIK EZ BAITITU AIPATZEN,

EZ SAKONEAN, EZ ERREALITATE SOZIALEAN SARTU GABE; ESATE BATERAKO, TEN ERAKUNDEAREN KALITATE PLANA, ZEINEAN LEHENENGO UNETIK PARTE HARTU BAITUGU. HAIN ZUZEN ERE 2011-2015 ALDIAN BENETAN EGINDAKO ERAUZTEEN GUZTIZKO KOPURUA MUGATUA DELAKO, AITORTU BEHARREKOAK DIRA KALITATE-ALDAGAIETAN EGINDAKO AHALEGINAK: URTERO SENIDENGANDIK JASOTAKO EZEZKOAK, EMAILEEN ETA HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO ADINAK, PROZESU BAKOITZEKO ORGANO GALDUEN TASAK, ETA N ETA Q OREKAK.

- NAFARROAKO PROGRAMA BEREZIA DA, ZEREN ETA NAFARROAKO OSPITALEGUNEACUN SINBIOSIA GERTATZEN BAITA, HAU DA, PUBLIKOAREN ETA PRIVATUAREN ARTEKOA. ETA SINBIOSIAK FUNTZIONATU EGITEN DU, AMAIERAN EGIAZKI LEHIAKORRAK DIREN EMAITZAK LORTZEN BAITIRA, GAIARI ASISTENTZIAKOEZ BESTE IKUSPEGI BATZUETATIK BEGIRATU NAHI BAZAIO ERE.

LAN ETA KOORDINAZIO PERTSONAL AKTIBO-HIPERAKTIBOA NAFARROAKO GAIXOEN ETA SENIDEEEN ELKARTEEKIN –ALCER, ATHENA, FIBROSI KISTIKOA, HEZUR-MUINA, ADONA ETA ABAR LUZE BAT–: OROITIDAZKIAN SOILIK AIPATZEN DA HORI OROITIDAZKI BAT EGIN DADIN ESKATZEKO. BISTAN DA OROITIDAZKI HORI EGIN EGITEN ZELA URTERO...

BERRIKUSPENEAN EDO AUDITORIAN INONGO IRUZKINIK EZ DAGO GAI KRITIKOAK DIRELA-ETA PLAN ESTRATEGIKO BEREKI BAT EDUKITZEKO PREMIA LARRIARI BURUZ. HONA HEMEN GAI HORI-ETAKO BATZUK:

- LEHENBIZI, LEGEDIA BETETZEA, KOORDINATZAILEAREN ARDURALDIA.

- BIGARRENIK, ORGANOAK ERAUZTEKO PROZESUKO PARTE-HARTZEA ETA ERANTZUKIZUNA, ERANTZUKIZUN HORI IZUGARRIA BAITA GAUR EGUN

- HIRUGARRENIK, ZER GERTATZEN DEN II. MOTAKO MAASTRICH PROGRAMAREKIN, ZEINA IRUÑA ETA IRUÑERRIA HARTZEN DUEN BARRUTIAN JADA KOMENTATU ETA AURKEZTU BAITA 2015KO UDABERRIAN, LARRIALDIETAKO SENDAGILEEKIN, ONT-SEMERGEN HITZARMENAREN BARRUAN.

- LAUGARRENIK, TRANSPLANTEEN NAFARROAKO BULEGOA ERATZEA

- BOSGARRENIK, ZEREGIN ASISTENTZIAL HONEK EDUKI BEHARREKO INDEPENDENTZIA POLITIKOA: ARDATZAK EZAGUTZA ETA ARDURA KLINIKOA IZAN BEHAR DIRA.

BETIERE, ZORROTZ BETE BEHAR DIRA PROZESU OSOAREN UNIBERTSALTASUNAREN, DOAKOTASUNAREN ETA KONFIDENTZIALTASUNAREN PRINTZIPIOAK, ARESTIAN AIPATUTAKO ARAU-ESPARRUAN ONGI DEFINITUTA DAUDENAK. NIRE KEZKA ADIERAZI BEHARRA DAUKAT HARTZAILEEN ETA ORGANOEN JATORRIARI BURUZKO AIPAMEN TEMATIA DELA ETA. ARE GEHIAGO, GURE INGURUNEAN ORGANO-EMATEEN ETA TRANSPLANTEEN PROGRAMAN –LIDER ETA AITZINDARI GISA AITORTUAK IZAN GARA

AZKEN 25 URTEETAN– AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEKO % 24KO ZEHARKAKOTASUNA EDO ORGANO-TRASLAZIOA GERTATZEN DENEAN. HAIN ZUZEN ERE, JOERA DA ESPAZIOA ETA AUKERAK HANDITZEKO, ETA EZ GUTXITZEKO... ULERTEZIN GERTATZEN DA HORRETAN TEMATZEA, ETA, GAINERA, KONFIDENTZIALTASUNA MANTENDU BEHARRA DAGO.

AZKENIK AIPATU BEHAR DA HEZUR-MUINAREN EMAILEEN KOPURUA TXERTATUTA DAGOELA HEZUR-MUINAREN EMATERAKO PLAN NAZIONALEAN, TEN ERAKUNDEAK ETA BARTZELONAKO JOSEP CARRERAS FUNDAZIOAK KUDEATUA, ETA NAFARROA LEHENDIK ERE

AITZINDARIA ZELA EUOPAR BATASUNAREN ESPARRUAN, DOSIERREAN AIPATZEN EZ DIREN TASEKIN. TASA HORIEN FUNTSA DA HISTORIKOKI NAFARROAKO ODOL BANKUAK EGIN DUEN LANA ETA ADONAREKIN IZAN DUEN SINERGIA.

ZILBOR-HESTEKO ODOLAREN ETA PREKURTSORE HEMATOPOIETIKOEN EMATEARI BURUZKO KAPITULUAREN ABIAPUNTUA O-NOZEN ETA BARTZELONAKO EHUN BANKUAREN ARTEKO HITZARMENA DA. HITZARMENAREN HASIERAN ZENBATEKOAK BIKAINAK IZAN ZIREN, ETA GERO PIXKANAKA BEHERA EGIN DUTE PROZESUA AMAITZEAREN ONDORIOZ. DOIKUNTZAKO ALDI BEREZI BAT IZAN DA, SISTEMAREN ATZERAELIKATZEA ESKATZEN ZUENA, EMAGINEKIN ETA LIZARRAKO, TUTE-RAKO ETA BIDEKO AMA BIRJINA OSPITALEKO LANGILEEKIN. GAINERA, EMATEEN JAITSIERAREKIN BATERA, PROZESUKO KONPLIKAZIO-TASAK GORA EGINA ZUEN. KAPITULU HAU GARRANTZI EKONOMIKO HANDIKO ESPARRU BAT ZEN, LANKIDETZA-HITZARMEN HORI ZELA ETA.

IZAN DIREN EGINBEHARRAK GAINDITUTA –EHUN BANKU BAKAR ETA ZENTRALIZATUA ERATZEA, HEZUR ETA KORNEAK BATERA HARTUKO ZITUENA, HASIERATIK BERTATIK HORNIDURA OREKAZ EMATEKO, NAFARROAKO OSASUN SISTEMA ASISTENTZIALAREN ESKARIAREN ETA BEHARREN



ARABERA ETA TRAZABILITATEARI, MANTENTZEARI ETA ABARREI BURUZKO LEGEDIAREN ARABERA, ETA FORU DEKRETU ETA FORU AGINDUETAN ZEHAZTUTAKO BATZORDE TEKNIKOAK ERATU ETA HAIEN DEIALDIETARA JOATEA, ETA BATZORDE HORIEN AKTAK ETA ABARREKOAK EGITEA-, HONAKO HAU ONDORIOZTATU BEHAR DUT: NIRE AITORTZARIK ETA ESKER ONEKO TESTIGANTZA PERTSONALIK BENETAKOENAK BERRETSI NAHI DITUT, PUNTU HAUEK GUZTIAK –2012-2015 ALDIAN IZANDAKO ESPERIENTZIA TRINKO ETA ILUSIONAGARRIAREN ONDORIOZKOAK– ADIERAZTEKO EMAN DIDAZUEN AUKERARENGATIK.

IRUÑEAN, 2017KO APIRILAREN 4AN

IZENPETUA: JAVIER ALDAVE VILLANUEVA

## BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Aurkeztu dizkiguten alegazioengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Osasun Departamentuko kontseilariari, autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzaile ohiari eta Odol eta Ehun Bankuko zuzendariari. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako haren edukia aldatzen. Halere, Ganbera honek honako hau aipatu nahi du:

### OSASUN DEPARTAMENTUKO KONTSEILARIARI EMANDAKO ERANTZUNA

ADONarentzako diru-laguntzarako aurrekontu-partida Odol Bankuaren aurrekontu programan sartzeko beharra dela-eta txostenean adierazitako irizpideari dagokionez, Ganbera honek uste du hala egin beharra dagoela, kontuan hartuta 1/2013 Foru Legearen 4.b) artikulua dioena; izan ere, honako helburu hau zehazten du zentro horrentzat: *“Nafarroan emate doakoa eta altruista sustatu eta bultzatzea, eta beharrezkotzat jotzen diren azpiegituren eraikuntza eta zerbitzuen ematean laguntzea”*.

### ODOL ETA EHUN BANKUKO ZUZENDARIARI EMANDAKO ERANTZUNA

- Zilbor-hesteko odolaren emateari dagokionez, harrigarri gertatzen da NOEBeko gaurko zuzendariak alegatzen duena, zeren eta zentro horretako zuzendari ohiak emandako informazioaren arabera, erakunde horren helburua baita bera –NOEB, alegia– izatea bidalketak kontrolatzeko gunea. Izan ere, Osasuneko kontseilariak asmo hori bera aipatzen du bere alegazioetan.

- Aurrekontu-betearazpenari buruz egindako iruzkinei dagokienez, berriz, txostenak NOEBen aurrekontu-partidei egotzitako diru-sarrera guztiak jasotzen ditu, eta ez zitzaigun esan beste partida batzuetan kontabilizatutako bestelako diru-sarrerarik zegoenik. Navarra-Biomedekin dagoen hitzarmenari buruz, berriz, ez dira erregistratzen produktu zelularrak lagatzearekin lotutako zerbitzuak, zeren eta, erakunde horrekin lankidetzan jarduten duten O-NOZeko gainerako zentroekin gertatzen den bezala, haien kudeaketa Miguel Servet Fundazioak egiten baitu. Horren gaineko kontrol exhaustibo eta xehakatu dago.

- Txostenak jaso egiten ditu beren zerbitzuak Tuteran ematen dituzten langileak, bai eta plantillan jaso ez diren egiturazko lanpostuak ere, IV.1 atalean ikus daitekeen bezala.

- Galdetu da ea alderdi jakin batzuk aztertu ziren ala ez. Bada horri buruz Ganberak berretsi beharra dauka ezen, zentro horretako zuzendariari aurreko bilera batzuetan adierazi zitzaion bezala, egindako lanaren helburuak berriaz aipatuta daudela txosten honen III. atalean, baina beste alderdirik ez dela ebaluatu.

- Jarduerari eta prozedurei dagokienez, akatsik ez dago aurkeztutako datuetan; izan ere, alde batetik emate autologoak jaso ditugu eta bestetik emate horien bidez lortu den unitateen kopurua, zeina handiagoa izaten baita beti. Gauza bera gertatzen da lortutako eta banatutako plasma-unitateekin: ez dute zertan bat etorri edo batzuk besteak baino handiagoak zein txikiagoak izan, zeren eta hori dagoen stockaren eta balizko iraungitzeen arabera izanen baita.

- Bestetik, guraso hematopietikoen transplanteen (hezur-muina) kopuruari dagokionez, egiazki Nafarroako Ospitalegunekoak sartu dira soilik, zeren eta horiexek baitira aztertu den eta 4. eranskinean jaso den prozeduraren arabera egin direnak. Izan ere, Nafarroako Ospitaleguneko Hematologia Zerbitzuak egindako transplante autologoak ebaluatu ez dugun beste prozedura batez egiten dira. Ez dira jaso, ezta ere, CUNek egindakoak. Era berean, ez ditugu jaso erakunde horretan egindako ehun-transplanteak.

- Ganbera honek txosteneko baieztapena berresten du, enpresek zatikatsetik heldu ez diren hemoderibatuak ekoizteko erabiltzen duten plamaren ordainpeko jatorriari buruzkoa. Odol-osagaiak beste autonomia erkidego batzuetatik inportatzeko beharri buruzko datuen falta dela-eta egindako aipamenari dagokionez, nabarmendu beharra dago zeuden datuak alde batera utzi zirela, adierazgarriak ez zirelako; esate baterako, 2015ean, halako unitateak lortutako unitateen ehuneko 0,1 izan ziren, baina portzentaje hori bera da beste probintzia batzuetara igorri zena, eta, beraz, jo genuen datua ez zela adierazgarria.

- Azkenik, erakunde honek egiten duen lana gidatzen duten auditoria-arauak aplikatuta, lanaren norainokorako muga bat deskribatu zen: litekeena da NOEBekin lotutako gastu batzuk egotea zentro horren aurrekontu-partidetan zuzenean kontabilizatu ez direnak. Egiazki, hori dela-eta aipatzen direnak zentroaren gastutzat jo litezke, baina nolana ere egindako baieztapena berretsi beharrean gaude: gastuen guztizkoan ez lirateke adierazgarriak izanen.

Iruñean, 2017ko apirilaren 7an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga